



- **Sébastien Castet**, Euskal Konfederazioa «Hizkuntza politika ezin da egin diru-laguntzak emanik bakarrik» • **452º F** Literaturaren teoriari buruzko aldizkari eleanitza
- **Asisko Urmeneta** «Ironia bizirauteko eta aitzina egiteko makulua da»
- **Irlanda** Elizako pederastia kasuek aldabidean jarri dute gizartea

Sagardotegien gida eta Olariagaren posterra opari



Etorkinak

Gaizki ikusiak ez, hedabideetan desitxuratuak






argia


www.argia.com/multimedia

bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean




Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarrizketak, erreportajeak, kultura...



Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.



Bereziak

Teknologia berriak baliatuz, informazioa emateko muntaia bereziak. Izan kronologia interaktiboak, mapa ilustratuak eta abar.



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produksioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaia Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



Deabruaren abokatua

- **Xabier Kintana:** «Noraezekoak izan dira, eta dira, Akademiak». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Etorkinak.** Talaiaaren arabera aldatzen da pertzepzioa. GORKA BEREZIARTUA / 5

Pertsonaia

- **Asisko Urmeneta:** «Hainbeste harrri eta menhirr artean latexezko irribarrea behar dugu euskaldunok». REYES ILINTXETA / 10

Gaiak

- **Sagardoa.** Bi marka, bi filosofia. I. SARASUA ARABAOLAZA / 15

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** 2012: Odisea (kutxa)espazioan. JOSÉ LUIS PADRÓN / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 21
- **Lagun feminista** izatea. KATTALIN MINER / 22
- **Txandan** Charles Boycott. JOSU AMEZAGA / 22
- **Hezi ala domestikatu?** ARANTXA URBE IRAZUSTA / 23
- **Hiruko txikian** Urte berri on. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** Gora Euskal Irria. MIREN AMURIZA / 24

Erdiko kaiera

- **452° F.** Gradu bat gorago literaturaren teorian. IRATXE ESNAOLA / 25
- **Zinema.** Pantaila itzali da Kresala zine-klubean. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 28
- **Liburuak** ARITZ GALARRAGA / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32 • **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Irlandako pederastia kasuak.** Elizak feudo bat galdu du. AMAIA ALVAREZ BERAESTEGI / 39
- **Elikadura-alergiak.** Ikerketa ordaintzen dutenek zer ikertzen duten. UNAI BREA / 42
- **Sébastien Catet, Euskal Konfederazioko langilea:** «EEP iritsi da bere mugetara». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Lurraren lapurretak matxinada berriak dakartza Afrikara. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Nire lotsak.** GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 50



“Noraezekoak izan dira, eta dira, Akademiak”

Xabier Kintana I
Euskaltzaindiko idazkaria

Hiru erakunde ilegal leloan,
eta legearen barruan oraino, aizue.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Iñigo Azkona

Euskaltzaindia euskaldun askoren buruhauste dela esango bagenu...

Pozik nengoke, baina euskaldun arrunten artean euskararekiko eta Akademiarekiko kezka ez dira, inondik ere, kezkarik handienak.

Euskara irakasle, ikasle eta abarrekoiei ez diegu galdetuko, badaezpada.

Badira batzuk uste dutenak euskaltzainok egunero arau eta erregelak berri eta aldrebesak ematen saiatzen garela, jolasean bagenbiltza bezala. Hori ez da egia.

Baina euskalduna nahasi egiten du Euskaltzaindiak?

Ez da hori gure asmoa. Arauak ahalik eta argien ematen saiatzen gara. Euskaltzaindiak euskaldun jendearentzat egiten du lan, gure hizkuntzaren erabilera on eta jatorrari eutsiz, eta ez azken orduko erdarakadei.

Oinak lurtean dituen erakundea dugu, orduan.

Zalantzarik ez. Arau bat erabaki eta argitaratu baino lehen, Euskaltzaindiak lehengo eta oraingo autore garrantzitsuenen erabilerak aztertu eta gero hartzen ditu erabakiak, ez itsumustuan.

Bai hiztunari bizkar emanez?

Aurretiko hizkuntza idatziak mantentzen du forma idatziaren tradizioa. Munduko hizkuntza idatzi guztien oinarria da hori. Hizkuntza mintzatu hutsezko formak ere inoiz, erabat zilegi eta erabilgarriak dira, modu informala-goan.

Horrexegatik ari zarete fitxatzen idazleak.

Euskaltzain berriak izendatzeko irizpideari bazagozkio, idazleen merezimenduak beti izan dira eta gero ere izango dira ondo kontuan hartzekoak.

Jon Juaristirenak, esaterako.

Euskal kulturaren, hizkuntzaren eta literaturaren ezingo litzaioke deus ukatu, eta gustatuko litzaidake bera kritikatzeko dutenak euskal arloan berak adina balekitez.

Baina...

Baina edozein akademiatan, badira kontuan hartzeko beste ezaugarri batzuk: hizkuntzarekiko atxikimendua, jendarteko jarrera eta imajina, iritzien oreka... eta kontuan hartu ohi ditugu.

Ekin eta jarrai, hartara.

Hizkuntzaren arautzea eta batasuna ez dira bat-batean burutzen. Bestalde, eboluzioan eta egokitzearen dabilta hizkuntzak, eta beti izaten dira zalantzak. Hizkuntza bera hiltzen ez bada, ez dut ezagutzen ateak inoiz itxi dituen akademiarik.

Bai sekula ireki ez dituenik.

Bai. Dena den, kultura mailara eta ofizialtasunera heldu berri diren mintzairaren kasuan, noraezekoak izan dira, eta dira, Akademiak. Areago gurea bezalako herri anarkiko samar batean. ■



Etorkinak

Talaiaren arabera aldatzen da pertzepzioa

Krisi ekonomikoak eragindako egonezinek ez dute, beste herrialde batzuetan gertatu den bezala, atzerritik etorritakoengan bilatu pagaburua. Datuek diote ezetz, ez dela larritzeko moduko motiborik gurean, koadroa osorik ikusiz gero. Etorkinei buruz ditugun pertzepzioak estandarren barruan daude. Arrazakeria izan bada, ordea, orokortuta ez dagoen arren.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Dani Blanco



Etorkinei buruzko ikuspegi funtzionalista da nagusi, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egindako ikerketen arabera. Atzerritarrek euren lan egiteko gaitasunarengatik estimatzen dira batez ere.

“JENDEAK armak hartuko ditu egunen batean eta justizia bere kontutik egiten hasiko da, epaileek eta batez ere politikariek ez baldin badute konpontzen ez bakarrik Euskadi, Espainia guztia hondatzen ari den problema larri hau (...) Auzo horretako bizilagunak animatu nahi ditut, desanima ez

daitezen, kontrara, utz diezaiotela ertzainei deitzeari, eta egin dezatela egin beharreko guztia kanpotik etorri den zabor horrekin” (*Thor*, 2011ko azaroaren 22a). “Errenteriako bizilaguna naiz, eta egia da Iztietako auzoak nazka ematen duela dabilen jendaila horrekin. Eta zer egiten du Ertzaintzak... Udal-

tzaingoak... Udalak... ??? EZER ERE EZ!!! Iruditzen zait honek oso gaizki bukatu behar duela, jendea lehertu egingo delako. Eta espero dut SOS Arrazakeriakoak isilik egongo direla eta ez dutela defendatuko defendaezina dena. Ze, hemen bizi garenok oso garbi ikusten dugu problemak magreb-tarrek sortzen dituztela. Inor ez da kexatzen auzo berean bizi den koloreko beste jendeaz, eta asko daude. Zergatik ote, SOS Arrazakeria?” (*Mikel83*, 2011ko azaroaren 24a). “Duela astebete neronek ohartarazi nuen nolako degradazioa zekarkion auzo horri PSOEk baimendutako meskitaren ezartzeak, lokutorioak, te-dendak eta antzerako negozio-estalkiak jartzeak eta abar (...) Iztietako eta Erreterriako bizilagunek ez dute zertan irentsi Zibilizazioen Kultura gaizki deitu horren fruitu den kaka hori” (*Imanoldonostia*, 2011ko azaroaren 22a). *El Diario Vasco*ren webgunean ikusitako iruzkinak dira –gaztelaniaz idatzita zeuden jatorrizkoak–; horien goian irakur daitekeen albistearen titularrak zera dio: “Bizilagunek salatu dute Erreterriako Iztietako auzoa ‘infernu’ dela”. Auzotar batzuen adierazpenek bete dute notiziaren gorputza. Ez direla seguru sentitzen esaten dute, delinkuentzia-giroa nagusi dela bizi diren kaleetan. Artikulua gertakari tragiko baten ondorioz atera da periodikoan, gizon bat hil zen 2011ko azaroan Mesón Extremeño tabernan izandako eztabaida gogor baten ondoren bihotzekoak jota. Baina gertakizun horretatik harago, auzoan zabaldu diren negozio batzuk ere seinalatu dituzte Gurekin auzo-elkarteko kideek, haien inguruan sortzen baitira, beraien ustez, auzoa hondoratzen ari diren egoerak: borroka, prostituzioa, lapurretak, droga-trafikoa...

Ez da “etorkin” hitza aipatzen, ezta sinonimorik ere artikuluan behintzat; albisteak dauzkan erantzunen tonuari erreparatzea besterik ez dago ordea, batzuek arazoa non eta batez ere norengan ikusten duten konturatzeko. Pertsona zehatzen arteko problema batek komunitate oso bat jarri du zenbaiten dianan eta komunitate hori etorkina da –magrebtarra batez ere, bigarren iruzkinari kasu eginez gero—. Ez da Iztietako horrelako

2010eko immigrazioari buruzko urtekariko datuen arabera, herritarren %15,4k immigrazioa problematzat jotzen du. Portzentaje kezkagarria? Inguruko herrialdeetan ematen den datuaren antzekoa da

“Klase ertainen artean etorkinenganako iritzia baikorra da. Zergatik? Etorkinek abantailak bakarrik dakartzatelako: emakume asko lan merkatuan sartzearekin batera, etorkinek bete dute etxeko hutsunea oso diru gutxiren truke; gainera, lan merkatuari begira ez dira inondik inora konpetentzia”

GORKA MORENO, EHUKO IRAKASLEA

afera batengatik prentsari azaldu den lehenengo aldia. Bi urte lehenago ere, lapurretak eta bortxaketa saio baten ostean asko nahasi zen giroa Erreterriko auzo berean, etorkinen denden aurrean elkarretaratzeak egin zituzten bizilagun batzuek hainbat egunez, ehunka lagun haserre, irainak eta erasoak, giro estua.

Krisi garaia aproposak izan ohi dira horrelakoak sortu eta ugaritzeko. Aski da ezinegon soziala gizartearen sektore baten kontra bideratzea –eta ez preseski ezinegon hori eragin duena– Iztietakoa bezalako gertakariak ikusten hasteko. Baina krisiarekin edo gabe, gutxien espero den lekuan aurkituko du begi zoliak –edo ez hain zoliak– arrazakeria arrastorik. Iazko

martxoan SOS Arrazakeriak ikerketa simple-simplea egin zuen Bilboko zenbait tabernatan: lokal berdinetara bikote beltz, arabiar eta zuri bana sartzen saiatzea eta emandako erantzunak grabatzea. Every izeneko tabernan ez zieten beltzei, marokoarrei eta latinoei sartzen utzi. Big Benen beltzei eta marokoarrei. Weekenderren marokoarrei. El tres: marokoarrei. El bongo loco: marokoarrei. Divino Cieloko San Pedrok atea itxi zien beltzei eta marokoarrei, Jainkoak ez, baina lokalaren politikak hala agintzen zuela argudiatuta. El Galeón: marokoarrak eta arjeriarrak. La Otxoa: denak doan sartu ziren, marokoarrak izan ezik, haiei sarrera ordaintzeko eskatu zieten. Charol-en –bederatzigarren tabernan– bakarrik sartu ahal izan ziren guztiak; sexuaren arabera *bakarririk* diskriminatzen dute taberna horretan, gizonak ordaintzen dute, emakumeek ez.

Etorkinen pertzepzioari buruzko datuak

Kasuok kezkatzeko modukoak dira, baina zenbateraino daude zabaldua halako jarre-rak Euskal Herrian? Arrazakeria gorantz doala pentsatzeko motiborik ba ote dago? Zehatzago idazteko borondatez jo dugu Ikuspegi@k.gizarte

gaien behatokia. Duela gutxi argitaratu dute EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekarria eta azpimarragailua gastatzeko moduko datuak eskaini ditu; bestek beste, atzeritik etorritako pertsonen kopurua jais-tan hasi zela duela bi urte eta iaz ere behe-ranzko joera hori mantendu dela. Azken



bost urteetan hori gertatzen den lehenbiziko aldia da eta krisi ekonomikoa seinaltatu dute gutxitze hori eragin duten faktoreen artean.

Kopuruak gorabehera, etorkinez dauden pertzepzioak izan ditugu mintzagai Gorka Moreno EHuko soziologia irakaslearekin. Berak koordinatu du, Xabier Aierdirekin batera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako immigrazioari buruzko txostena. Lan mar-dul horrek eskaintzen dituen datu ugarietatik bat, herritarren %15,4k immigrazioa problematzat jotzen duela. Portzentaje kez-kagarria? “Ez, egia esateko mota honetako inkestak Espainiako Estatuan ere egiten dira

eta datuak antzekoak dira”. Hobexegoak ere badira, Morenoren esanetan, EAEko zenbakiak. Pertzepzio horiek hainbat fakto-rek eraginda sor daitezkeela azaldu du, bes-teak beste, leku batean bizi den etorkinen kopurua eta krisi ekonomikoa leku horretan duen inpaktua. Eta, alde horretatik, Hego Euskal Herria ez dabil, momentuz behintzat, Espainiako Estatuko hainbat zonalde bezain larri. “Krisiarekin detektatu genuen 2010ean datuek zer edo zer okerrera egiten zutela, baina laster publikatuko dugun 2011ko barometroan ematen du, 2010. urtearekin konparatuta, hobetu egin direla”.



Ikuspegi funtzionalista

“Etor daitezela, baina lan egitera” esaldiarekin laburbilduko litzateke txostenetik ateratzen den beste ondorio bat. Etorkinak beharrerako gaitasunagatik baloratu izan dira nagusiki eta hala gertatzen da oraindik ere; herritarren %44,9k uste du hainbat sektoretan lan egiteko premiazkoak direla eta askok uste du (%47,1ek) atzerritarrek egiten dituzten lanak bertakoek egin nahi ez dituztenak direla. “Beste galdera bat ere badago, ea zein etorkinek izan beharko luketen egoitza-baimena. Erantzuna: enplegua daukatenak. Inkestatu gehienei berdin zaie gainontzekoa,

enplegua baldin badaukate gelditu daitezke gurekin. Dena den, hori ere ez zait kezka garria iruditzen —dio Morenok— askotan kontrajartzen dira ikuspegi funtzionalista —lan merkatuari loturikoa— eta giza eskubideetan oinarritzen dena, baina etorkinak hona lan egitera etortzen dira, eta hemen lan aukerak daude. Zentzu horretan, guztiz normala iruditzen zait elementu funtzional hori barneratuta egotea eta batzuetan erabili beharko da; azken finean, EAEk daukan ongizate maila mantendu nahi badu, ikuspuntu demografiko batetik, ezinbestekoak dira etorkinak”.

Lanpostuen gaia garrantzitsua da herritarren jarrera zehazterakoan. Sinplifikatuta azaltzeko, bertan jaioetakoen egoera ekonomikoa zenbat eta hurbilago egon etorkinetik, orduan eta okerragoa da atzerritarren ganako pertzepzioa. Lan prekarioak dituztenak, langabezian daudenak, gizarte-laguntzak jasotzen dituztenak... agertzen dira ikerketetan immigranteak begi txarrenez ikusten dituztenen artean. Morenok dioenez, kolektibo horientzat etorkinak lehiakideak dira, gizartearen estratu berean daudelako, “eta alderantziz, oso nabaria da, eta ez da kasualitatea, klase ertainen artean etorkinenganako iritzia baikorra izatea. Zergatik? Klase ertainentzat etorkinek abantailak bakarrik dakartzatelako: klase ertaineko emakume asko lan merkatuan sartzearekin batera, etorkinek bete dute etxeko hutsunea oso diru gutxiren truke; gainera, lan merkatuari begira ez dira inondik inora konpetentzia; beraz, oso erraza da diskurtso inpeka blea erabiltzea, etorkinek abantailak bakarrik ekartzen dizkietelako”. Beste aldearentzat berriz, etorkinak problema objektiboa direla dio Morenok: immigranteek lan prekarioak egiten baldin badituzte, bertan jaioetakoek aukera gutxiago dituzte.

Datuak vs. historiak

Ikerketek kezkatzeko motiborik ematen ez badute ere, prentsa irakurle arruntaren alar mak behin baino gehiagotan pizten dira etorkinen gaia nola lantzen den ikusita —eta batez ere, horrek jendearen ikuspegia nola distortsiona dezakeen pentsatuta—. Iztieta ko kasua aipatuz hasi dugu erreportajea eta, gatazka horretan hedabide batzuek su-piz taile lana bete dutela esatea ez da larregike ria. Errenteriako Udalak berak eskatu behar izan zien medioei zentzuz jokatzeko. Ez ziren exijentzia handiegiak: iturriak egiaztatzea eta gaia ikuspuntu guztietatik jorratzea, gertaerak sinplifikatu gabe; edozein kazeta rik egin beharko lukeena, ez gai arantzatsue kin bakarrik, edozeinekin baizik. Baina



Tolerantzia-atalase txikiena duten pertsonen profila	Aldagaia	Tolerantzia-atalase handiena duten pertsonen profila
65 urtekoak eta hortik gorakoak	Adina	18 urtetik 44rakoak
20.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi direnak	Habitata	20.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi direnak
Lehen mailako ikasketak baino ez dituztenak	Ikasketak	Erdi-mailako eta goi-mailako unibertsitate-ikasleak
Katolikoak, praktikanteak ala ez	Erlijioa	Agnostikoak, ateoak edo erlijioa axola ez zaienak
Hilean 600 euro kobratzen dutenak, gehienez	Diru-sarrerak	Hilean 1.800 eurotik gora kobratzen dutenak
Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez daudenak	Egoera ekonomikoa	Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura daudenak
Etxe lanetan aritzen direnak, erretiroa hartua dutenak, pentsiodunak edo errentadunak	Lanbidea	Ikasleak
Eskuineko ideologia dutenak	Ideologia	Ezkerreko eta erdialdeko-ezkerreko ideologia dutenak
Espainiar abertzaleak	Abertzaletasuna	Abertzaletasun kontuak berdin zaizkienak, muturreko euskal abertzaleak eta moderatuak
Espainiar soilik, eta euskaldun baino gehiago espainiar sentitzen direnak	Identitate-sentimendua	Euskaldun soilik sentitzen direnak, eta espainiar baino gehiago euskaldun sentitzen direnak, eta espainiar bezain euskaldun sentitzen direnak
Estatus baxua dutenak	Estatua	Estatus altua eta ertain-altua dutenak

Ikuspegi@k gizarte gaien behatokiak egindako immigrazioari buruzko 2010eko urtekaritik ateratakoa da goiko koadroa. Etorkinenganako tolerantzia-atalasea hainbat faktoreren arabera neurtzen du, bi muturrak erakutsiz. Faktore horiek ezer determinatzen ez duten arren, azken urteetan egindako ikerketek erakusten dute esanguratsuak, behintzat, badirela.

hemerrotekak hor daude, gutxiegitan egiten dela frogatzeko.

Morenok azaldu du beste problema bat ere badagoela. “Gai hauek lantzen dituen kazetari batek esaten zidan: ‘Guk ez ditugu datuak nahi, guk historiak nahi ditugu’”. Egunkariak saldu egin behar direla, alegia, eta bizikidetza harmoniatsuak ez duela horretan asko laguntzen. “Txakurrak umeari hozka egitea ez da albiste, umeak txakurrari hozka egitea bai” dio kazetaritzaren maximetako batek. Ezohikoa, anormala bilatzen dugu artikuluak idazteko, baina beti daude gaingitu ezin diren, edo gaingitu beharko ez liratekeen mugak. Ezohikoa, anormala bilatzen dugu artikuluak idazteko, baina beti daude gaingitu ezin diren, edo gaingitu beharko ez liratekeen mugak. Etorkinen kasuan, jatorri atzeritarra delituekin lotzea da horietako bat. Ez beharbada modu zuzenean, “X herrialdeetatik etorritakoek lapurretak egiten dituzte” esanez, baina delituen berri ematean

Ezohikoa, anormala bilatzen dugu artikuluak idazteko, baina beti daude gaingitu ezin diren, edo gaingitu beharko ez liratekeen mugak. Inoren jatorria delituekin lotzea, adibidez

gaizkilearen jatorria seinalatuz eta beraz, inplizituki, delitua egin duen pertsonatik harago, komunitate osoa seinalatuz. “Komunikabideen papera arriskutsua izan daiteke baldin eta anormala normalizat jotzen badute edo gutxiengoa dena gehien-gotzat jotzen badute. Horrek, noski, inpaktu zuzena dauka iritzi publikoarengan”. Berak uste du egin daitekeela eta egiten dela bestelako kazetaritzarik. “Ze, zuk historiak nahi badituzu immigrazioaren inguruko gauza baikorrak ere saldu ditzakezu, hainbat komunikabidetan egiten ari da, Kolonbiatik edo Ekuadorretik etorri

den emakume baten bizitza, adibidez, eta nola zaintzen dituen gure adinekoak. Erakutsi daiteke zein gogorra den euren bizitza ere, zein onuragarriak eta beharrezkoak diren...”. ■

den emakume baten bizitza, adibidez, eta nola zaintzen dituen gure adinekoak. Erakutsi daiteke zein gogorra den euren bizitza ere, zein onuragarriak eta beharrezkoak diren...”. ■



Asisko Urmeneta

«Hainbeste harrri eta menhirrr artean latexezko irribarrea behar dugu euskaldunok»

Asiskorekin solasean aritzean, irudiak etengabe heltzen zaizkizu burura: ile kosmonautiko eta perla Majoricak daramatzaten atso upenianoak, eskuak poltsikoetan imantatuak dauzkaten bertsolariak, 80 urteko Asisko xahar bat gazteen musika kritikatzuz... Euskararen maitale gartsua, mingaina eskua bezain trebea du, irudimena borborka eta irri karkaila beti aireratzeko prest. Biba zu!

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

Google maps-en aginduetara, bide laburrentik etorri eta bazter ezin ederragoetan barna, ozta-ozta iritsi gara Hozta herriraino. Nola eta zu hemen?

Oztibarre ezagutu nuen aspaldian –orain gauza gehienak guretako jada aspaldian gertatuak dira eta!–. Duela 20 bat urte Izura herrian antolatzen zuten Marrazkirri izeneko marrazki umoristikoen erakusketa. Garai hartan *Napartheiden* ari ginen eta deitu gintuzten parte hartzeko. Etorri, eskualdea ezagutu, adiskideak egin eta geroztik urte oroz Marrazkirrira etorri eta urte oroz lagun oztibartarrak Sanferminetara joan. Eta jada duela urte batzuk ere, lan inguruan eta bizimoduan, krisi bat izan nuen. Bizimodu petrala oso, kalitate gutxikoa neraman: lan dezente, kontrakoa badirudi ere, eta gaupasa asko bai lanerako baita festarako ere. Nik ez dut fatalitatean sinesten. Ez dut uste hiritar jaio eta izan garelako, hiritar hiltzera kondenaturik gaudenik. Ni beti oso hippy izan naiz eta mendira eskapatzen nintzen ahal nuen guztietan. Gauza batzuk elkartu zitzaizkidan eta ikusi nuen aski nuela Iruñea, marrazkigintza eta Euskal Herri osoan barrena hitzaldiz hitzaldi ematen ibiltzea. Orduan telefonatu nuen nire hemengo adiskide bat, baserritarra dena, eta esan nion behar baldin bazuen hiritar inutil perfektu bat, inizatibarik gabea, edozein lan xume egiteko, ni prest nengoea

nire puskak bildu eta harengana joateko. Garai hartan behi eroen krisiaren ondorioz, baserritarrek oso zaila zuten behi edo txahala osorik saltzea eta puskaka jarrita egin behar izaten zuten. Horretarako Mauleko hiltegiara

Nortasun agiria

Asisko Urmeneta (Iruñea, 1965) marrazkilaria eta marrazkijalea. Magisteritza ikasketak egiten hasi zen “gehienbat aita izorratzeagatik, berak nahi baitzuen nik lauzpabost karrera egitea”. Garai hartan hasi zen euskara ikasten eta ondoren euskara irakasle aritu izan da urtetan. 1988an *Napartheid* fanzineko sortzaileetako bat izan zen. Zenbait komikiren egilea da: *I'm Pellot! Biba festa!, Erraondo, Gartxot* eta *Okatxu*, besteak beste. Kukuxumusu marrazki faktoriako kidea da. Zazpiak Batman kolektiboarekin batera gazte hizkeraren inguruko hainbat “hiztegi” kaleratu ditu: *Mantxut?, Mantxut-mantxut?* eta *FreeeeeExkue*. Hamaika hitzaldi eskaini ditu, horietako askotxo Kike Amonarri eta Antton Olariagarekin batera. Azken urte hauetan *Munduari bira doan* eta *Gartxot, konkista aitzineko konkista* animazio filmen egile eta sustatzaileetako bat dugu. Orain Hoztan bizi eta bi alaba txikiren aita da, Gexi eta Leixa.



Informatică / Informatica
Informatică / Informatica
Maintenance / Reparații
Entretien / Entretien



Autozentsura, automesura

“Sobera aseptiko bilakatzen ditugu batzuetan txistek, bere gordintasunean izan dezaketen indarra apalduz”.



Gartxot

“Auzolan kulturala, soziala eta sentimentala izan da filma. Kondaira honek sorrarazten duen hunkidura Campionek kontatzen zuen bezala saiatu gara transmititzen”.



maiz joan beharra zen, aldi berean, baserriko lana eginik utzi gabe eta horretarako bai behar zuela nire profileko hiritar inutil bat. Etorri egin nintzen eta ondoko herrian, Ibarlan, pasa nuen negua. Eta halako batean deskubritu nuen neure burua lanean eta gustura.

Maka-rena egiten zenuen? [Iruñerrian lantokietan mandatuak egiten zituen mutiko laguntzailerari maka esaten zitzaion].

Bai, bai, makarena. Donapaleuko biltegiara joan eta artoa erosi, hiltegiara, traktorea gidatzen ere ikasi nuen, baina nire gorenko lana behi gorotza, kaka, behitegitik ateratzea zen. Horrelakoetan orduak eta orduak: palataraka atera eta gero eskuorga bete eta hori eraman... eta horrela denbora desagertu egiten zen. Atsedean ikaragarria izan zen niretzat. Iruñean nire bizia zen sortu, pitokeriak egin, marraztu, igorri, telefonatu, hitzaldiak eman... Askotan sartzen nintzen ohean burua irakiten eta gorputza batere nekatu gabe. Orduan insomnia, ezin lokartu. Hemen, aldiz, lan fisiko ikaragarria eta lan intelektual gutxi egiten nuen, kaka nola antolatu era inteligente batez gehienez, eta halako batean sendatu egin nintzen. Ohartu nintzen traktorean fistuka nindoala. Urteak ziren ez nintzela ni lanean ari eta fistuka!

Horrekin guztiarekin erabaki genuen hona etortzea bizitzera. Ez zen erraza izan bizitokia aurkitzea dena sobera garestia edo sobera eroria baitzegoen eta halako batean hemen, Hoztan, etxe hau topatu genuen. Gainera saltaileak ez zuen espekulatu nahi. Hark eresia zuen hamar urte aitzin eta saldu nahi zion prezio horretan hemen herrian biziko zen euskaldun bati. Noizbait sortzen dira halako mirakuluak.

Bizimodu berria, aitasuna... Aldaketa sakonak.

Ez dut uste bata bestearen ondorio denik, baina sartzen zara hau bezalako proiektu batean, hasten zara zure sare sozialak eratzen, kokatzen, eta ondoko urratsa, oso modu naturalean, etorkizunean pentsatzea da. Aini-zeri planteatu nion, seguru aski arrazoi biologikoengatik, ni, jada, aita gabe aitatxi izateko puntuan bainengoan. Nik beti leporatu nion gure aitari zergatik eduki gintuen hain zahar eta ni bide beretik nindoan. Konjuntzio planetario egokia eman zen eta orduan haurrak heldu ziren. Arras kontent nago.

Satelite bidezko Internet konexioa eta autoa atean. Horrela bai bizi daitekeela herri txiki batean, ezta?

Urtez urte herri hauek husten joan dira eta batzuekako kondena latza izan da etxeko premua izatea, baserriari segida eman beha-

rra, abereekiko lotura nahitaezko hori... eta hau, aldiz, hautu libreza izan da. Nik nire marrazkiak egin eta Internetez igortzen ditut, berdin hirian bizi edo Hoztako plazan bizi, eta hemen aise hobeki. Hemendik joandako jendeak oraindik ez du ulertzen zer ari garen gu hemen, lotzen baitute herria kondena horrekin, nik neuk hautsi dudana hiritar izatetik herritar izatera pasatuz. Soziologikoki arras interesgarria da hori ezagutzea. Herri euskaldun batean bizitzea ere niretzako bizi kalitatea da eta batzuek hori ere kondena gisa bizi izan dute, “zibilizazio” frantsesaren aldean. Hemen egunero ikasten ari naiz. Zerbaitz ohartu banintzen hasiera-hasieratik zen hemen bizia eta herioa askoz ere presentego daudela hirian baino. Hirian ez ditugu ikusten biziaren bi muturrak. Adina eta baloreak ere oso desberdinak dira. Hirian 40 urteekin, ezkongabea bazara, “a zer animalea! Nola ateratzen dion zukua bizitzari!” Eta hemen, berriz, 30 urte badituzu eta ez baduzu harreman bat bideratua, mutilzaharra, “gaizo haurra, gaizo baserria eta familia!”.

Ez naiz Euskal Herriatik atera. Ez naiz Nafarroatik atera ere, eta hemen nago etengabeko bidaia batean bezala. Supermerkatura joan eta produktu guztiak frantsesez daude, beste erdara batean, niretzako hori bidaia batean ibiltzea bezalakoa da, baina etxean egonik. Niretzako perfektua!

Eta euskararen egoera nola ikusten duzu hemen?

Kronika pertsonaletik abiatuz: Aste guztiz gure alaba nagusia, Gexi, Pagolara joaten da kirola egitera, Joseikan Budo egiteko euskaraz. Gaur arratsaldean bertso-frust bilera dugu Maulen. Hor bertsolari frustratuak biltzen gara eta dena kantatuz egin behar da. Eta, kasualitatez edo, noizbait norbaitek bertso on bat egiten badu deskalifikatzen dugu eta BECera bidaltzen. Honetaz gain Askaot! izeneko gazte talde bat antolatu da Oztiba-

Aurreiritziak

“Napartheiden garaian erdaldunek askotan galdetzen ziguten ea zergatik lan egiten genuen euskaraz. “¡Si lo hicieras en español lo entendería más gente!”. “¡Y si lo hiciera en chino, miles de millones!”. Erdaldunendako beti genuen erantzuna. Euskaldunen artean dago arazoa. Gure artean dogma eta gai sakralizatu ukiezin gehiegi dago”.



ren, eta Donaixtin bada oso gaztetxe aktibo bat... Hegoaldean euskara noizbehinka ikusten duzu, entzuten duzu... Publikoa da. Hemen, aldiz, hizkuntza pribatua. Euskaldungoa ez da agerikoa, baina gero hemen biziz ohartzen zara lurpe horretan badela sare underground bat eta gauza dezente. Euskara ez da publikoa eta hori da Frantziako Estatuak ederki egin duen errepresio isil eta pozoitsuaren ondorioa. Arrozte eta kolonizazio ikaragarria lortu arte.

Umorea garrantzitsua da zure bizitzan.

Ironia izugarritzko arma da, lanabesa, eta baita filosofia, bizirauteko eta aitzina segitzeko makulu bat. Hemen Euskal Herrian laxatzeko beharra dugu alde guztietatik: negar egiteko, irri egiteko... Ikustekoa da nola, adibidez, Flandrian Waloniakoak atakatzten dituzten umoretik, kontzesiorik gabe. Guk espainolen kontra edo frantsesaren kontra ez dugu ezer muntatua. Ez eta gure buruaz trufa egiteko ere. Beste edozein herrik badu bere aldizkari satirikoa. Euskal Herrian ez. Umorea xehea interesatzen zait niri, ez lodia. Umorea xeheez edozein gai azter daiteke, baita minberenak ere: presoena, biktimena, independentziaren beharra, torturak... baina ez dugu

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

AZKEN HITZA

**Pablo Antoñana, José Mari Jimeno Jurío
eta Jorge Cortés Izalen irakasle**

“Duela zenbait urte Iruñeko Catachu taberna hartu genuen lagun batzuek. Oso onak ginen marketin kontuetan, ez horrenbeste ostalaritzan, eta lortu genuen *Bertatik bertara*, ETBko saiokoak inauguraziora etortzea. Lagunak gonbidatu genituen eta nik nire jainkoak deitu nituen. Batzuek Indurain zen bezala, nireak Pablo Antoñana, Jorge Cortés Izal euskaltzalea eta José Mari Jimeno Jurío ziren. Hirurak han agertu ziren eta gaizok sufritu zuten ezin zutelako euskaraz adierazi barnean zeukatena. Orduan neure burua eskaini nien irakasle moduan. Lehen Zaldikon eta gero Catachun bertan biltzen ginen astero. Oso saio bereziak ziren. Niretzako pribilegio bat. Nik uste dut hiltzen naizen momentuan, nire azken neuronekin izanen ditudan azken ostiko elektrikoetan topaketa horien oroitzapena izanen dudala”.



asmatzen. Batzuetan parrokia batekoek egiten dute barne kontsumorako, baina ez da plazara ateratzen. Gainera edozein gauza ezin da publikatu, hor baitago apologia legea. Ez gara Disneylandia. Eguneroko bizian badakigu zer den euskalduna izatea, baina horri umorez buelta ematea lortzen ez dugun bitartean, gaizki. Hegoaldean mito eta gai sakralizatu gehiegi dago, elizaren eraginez edo. Oso espainola, oso, latinoa egiten zait hori, eta euskararekin ere hori ikusten da. Hizkuntza ez da Balentziagaren museoko perlas eginiko soineko bat, baizik eta egunero erabiltzen dugun kamiseta eroso. *Mibiluze* saioaren arrakasta, adibidez, zergatik? Jendea, eta bereziki gazte jendea, horren egarri delako. Sobera zurrin gaude. Euskal Herriko bertso-larien aurrean txapela kentzen dut nik, baina ikustekoa da galbanizazioa, eskuak sakeletan imantatuak. Ez dugu hezur bakarra, berte-brazioa eta kartilagoak ere omen dauzkagu. Hainbeste harreri eta menhirrren artean latexezko irribarra behar dugu euskaldunok.

Zergatik marrazten duzu?

Ez dakidalako besterik egiten eta beti gustatu izan zaidalako. Aitak ere margotzen zuen eta marraztuarazten zigun. Ni ez naiz margolaria. Gauzen kontatzeko bi makuluren beharra dudala sentitzen dut: marrazkia eta hitza. Komikian aurkitu dut nire adierazpide egokiena eta berrikiago marrazki bizidunetan. Sekulako suertea izan dut.

Zuen aita Miguel Javier Urmeneta oso pertsona ezaguna zen: Iruñeko alkatea, diputatua, kultur gizona eta euskaltzale handia. Haren itzalak presiorik ekarri dizue?

Urtetan, nonbaiten izena eman behar nuenean askotan galdetzen zidaten: “Aizu, ez duzu zerikusirik izanen alkate izan zenarekin”, “bai, aita”. Eta orain: “Aizu, ez duzu zerikusirik izanen kamiseta egilearekin”, “bai, anaia”. Aita ezaguna izateak, nolabait bultzatu gintuen zerbait egitera, ez fama bila, baina bai gure memoria propioa egitera, inoren itzala izan gabe. Zaharrei ez dut deus leporatzeko, baina bai bitxia egiten zaidala aitak ez zigula transmititu abertzalegoari buruz informazio zehatzik. Leiho batzuk, pista batzuk uzten zituen baina oso lausoak. Haren aita abertzalea zen eta gerra hasi orduko prozesatu egin zuten. Gure aita gerrara joan zen, Division Azul-ean aritu zen naziekin orpoz orpo sobietarren aurka borrokatuz, militar karrera egin zuen Estatu Batuetan, eta abar. Garai batean niri hori dena onartzea oso zaila egiten zitzaidan. Nafarzale ilustratua, euskaltzalea, katolikoa izanda, nola zen posible? Zein kontraesan ikaragarria izan zen hori dena harentzat, berak ere ez zekien oso ongi azaltzen. Oso adin tarte handia zegoen gure artean eta hil zelarik ni 23 urteko gaztetxoa nintzen. Garai hartan egun batean batek esan zidan kalean entzun ziela bi atso upeniano, ile kosmonautiko eta perla Majoricak zituztenei: “*Fíjate qué mal estarán las cosas, que hasta el hijo de Urmeneta está pegando carteles de HB*”. Niretzako hura izan zen gerra oihi bat bezalakoa. Orain pena dut gehiago ezagutu ez, eta berak ere ni ezagutu ez izana. Pena, liburu eta prentsa artikuluen bidez ari naizelako aita eta gure aitatxi ezagutzen. Hori nik uste dut drama bat dela. Zerbait transmititu nahi badiet alabei eta gazte jendeari hori da: ezagutu agure-atsoak bizi direno. ■



Bi marka, bi filosofia

Sagardoari bide berriak irekitzeko asmotan bi marka sortu ziren 2011ko martxoan: Eusko Labela eta Gorenak. Kalitatea helburu, publikoa da lehenengoa, pribatua bigarrena, eta desadostasunak dituzte zigilua daraman sagardoak izan behar dituen ezaugarrien inguruan.

IRATI SARASUA ARABAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

ASPALDIKOA da sagardoa marka baten bermepean ateratzeko asmoa. Bide horretan, 40 sagardogile inguru duela zortzi urte hasi ziren Sagardo Mahaiaren bueltan biltzen, gaiaz hausnartu eta lanari ekiteko. Proiektua gogotsu abiatu zuten arren, barne eztabaidak izan zituzten sagarraren jatorriaren gainean, eta horien ondorioz zatiketa gauzatu zen 2010ean: batetik, bertako sagarraz soilik eginiko sagardo markaren alde egin zuten produkzio txikiko 27 sagardogilek, Eusko Labela proiektu publikoa martxan jarritz; bestetik, sagardoaren jatorrian baino gehiago arreta sagardoaren kalitatean jarritz, produkzio handiko 13 sagardogilek Gorenak marka pribatua sortu zuten.

Baten zein bestearen alde egin duten sagardogile horietako asko Gipuzkoako

Sagardogileen Elkarteko kide dira. Elkarteko Unai Agirrek esandakoaren arabera, sektorearen %80 osatzen dute Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko lagunek, eta Euskal Herriko sagardoaren %70 produzitzen. Produktua hobetzeko xedez, HiruB proiektua jarri du martxan taldeak, sektoreak eta elkar-teak jarraitu beharreko bidea ondo planifikatzeko eta lortu nahi dituzten emaitzak ondo zehazteko. “Mundu hau abiadura izugarrian aldatzen ari da, eta aldaketa horietara egokitzeko ez diren sektoreek etorkizun zaila dute”, dio Agirrek. Gipuzkoako Sagardogileen Elkar-teak ezberdintasun handiak ikusten ditu bi marken artean. “Eusko Label sagardoa %100 bertako sagarraz egindako sagardoa da eta kalitate parametro batzuk betetzen ditu. Oraindik produkzio mugatua du





Eusko Label sagardoak, sagardogileak eta sagardotegiak eskakizun berrietara egokituz joan behar dutelako eta merkatuek ere pixkanaka heziz eta informatuz joan behar duela”, dio Agirrek. Gorenak sagardoari buruz nabarmendu du bertako eta kanpoko sagarrarekin egindako marka kolektiboa dela, “ziurtagiri gabea”.

Kontuak kontu, sagardogileen elkarteko kideak diosku Gipuzkoan ekoizten den sagardo kopururik handiena bi marketatik kanpo dagoela gaur egun –izan ere, marka horien baitan ez dagoen sagardoa ere ekoizten baitute aipaturiko sagardotegiek eurek–, eta sagardo horren guztiaren alde ere egin behar duela elkarrekin, orain arte sagardo ona izan dena hemendik aurrera ere hala izango baita.

40 sagardotegi

Euskal Herriko sagardoaren %50 baino zerbait gehiago (botiletan 6 milioi litro urtean) sortzen dute Gorenak egitasmoa osatzen duten 13 sagardotegiek. Eusko Labelari dagokionez, aurtun 19 bodegatan 764.000 litro sagardo inguru sortu dituzte, baina 27 dira taldea osatzen duten sagardotegiak. Eusko Label egitasmoa ondorengo sagardotegiek osatzen dute: Gipuzkoan, Aburuza, Aginaga, Añota-Tolare, Astarbe, Baleio, Iparragirre, Bereziartua, Calonge, Eula, Larrarte, Itxas-buru, Astarbe, Lizeaga, Ola, Petritegi, Rezola, Saizar, Txindurri-iturri, Urbitarte eta Urdairia; Bizkaian, Axpe, Etxebarria, Kandi, Laneko, Malgarrazaga eta Uxarte; Araban, Iturrieta. Gorenak proiektua berriz, honakoek: Alorrene, Altzueta, Barkaiztegi, Begiristain, Egi-luze, Gartziategi, Gaztañaga, Gurutzeta, Isastegi, Olaizola, Sarasola, Zapiain eta Zelaia, guztiak gipuzkoarrak.

“Gure sagardoa da %100 hemengo sagarrak egiten dena, marka ofizial bakarra. Guretzat garrantzitsua da kontsumitzaileari jatorria, kalitatea eta benetakotasuna bermatzea”

ALAZNE URIBARRI, EUSKO LABEL

Bide bana

Bi proiektuak martxan jartzeko prozesuak gogorrak izan dira: Eusko Labelarena, %100 bertako sagarrak ekoiztutako sagardoaren alde egindako erronkatik; Gorenak taldearena, marka pribatua sortzeko sagardogileek beraiek euren dirua erabili behar izan dutelako. Helburuak ere eremu ezberdinetan ipini dituzte: Euskal Herriko sagarrean oinarritzea batetik, produkzioa areagotzea bestetik –egun Gipuzkoan pertsonako eta urteko batez beste kontsumitzen diren 8 litroak gaintu nahi dituzte Gorenakek–.

2010. urtean, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak argi ikusi zuen Eusko Label sagardoaren proiektua bultzatuko zuela eta sustatu beharreko produktua %100 bertako sagarraren alde egiten zuen ekimena zela. Sagarrak izan beharreko ezaugarriak biltzen dituen araudia osatu du labelak: sagar barietateak, biltzaile sistemak, zuzentzea, hartzidura eta aukeraketa prozesuak aztertutakoak, besteak beste. Labela lortzeko ezaugarriak findu ostean, 2011ko martxoaren 23an Eusko Label Sagardoa zigilua kaleratu zuten. Taldearen helburu dira, Euskal Herriko sektore produktiboak indartzeaz gain, paisaia, ondare historikoa eta aberastasuna eta biodibertsitatea mantentzen laguntzea. “Gurea %100 hemengo sagarrak egiten den sagardoa da, eta sagardo marka ofizial bakarra”, azpimarratu du labelaren zuzendari teknikoak, Alazne Uribarrik. 2008. urtean, Euskal Herriko Nekazaritzako Elikagaien Legea kaleratu zen eta hor jasotzen denez, Eusko Label Sagardoa da nekazaritza arloko elikagaiak kontrolatu eta egiaztatzeko bermea duen lehenengo erakundea eta bakarra Euskal Herrian.

Gorenak, zortzi urteko prozesuaren ondorio, iazko martxoaren 4an aurkeztu zuen marka. “Marka honekin, kalitatezko produktua beste produktuez bereizi nahi dugu, eta hain produktu generikoa den sagardoari balio erantsia eman diogu. Kalitatea da gure erronka”, dio taldeko kide Pello Irizarrek. Hori lortzeko, euren buruari arau batzuk jarri dizkiote, eta horiek gaintu behar dituzte produktua merkaturatzeko. Hasiera batean, Jaurlaritza-

“Kalitatearen epaile bakarra kontsumitzailea da; hemengoa izateak ez du bermatzen ona izatea. Gorenakekook baliabide gehiago ditugu, eta horrek ona izango dela ziurtatzeko aukera ematen digu”

PELLO IRIZAR, GORENAK

rengana jo zuten laguntza eske eta instituzio horren bitartez, hiru lan ildo jarri zituzten martxan: sagarraren egoeraren, upeltegien eta merkatuaren azterketa. “Sagastien egoeraren azterketa egin ondoren ikusi genuen sagar gutxi dagoela behar dugun sagardo guztia egiteko, eta gutxi horretan are gutxiago dela sagar ona, kalitatezkoa”, adierazi digu Irizarrek.

Euskal Herriko sagarra auzitan

Eusko Labela osatzen duten kideek zalantzak izan zituzten ea hemengo sagarrarekin bakkari egindako sagardoak etorkizunera begira aurrera egiteko aukera izango ote zuen. Baietz ondorioztatu zuten. “Kalitatezko produktuak egin daitezke Euskal Herriko lehengaiekin”, dio Eusko Labelako zuzendari teknikoak. Taldea kontzientziazio kanpaina egiten ari da bertako sagar ekoizleen artean, normalean sagasti txikiak dituzten baserritarrak, adinez helduak. Laguntza tekniko ere eskaintzen die Eusko Labelak. “Gure sagastiak oso gune txikiak dira, aldapa handiekin, sagarra jasotzea asko kostatzen da eta sagastien jabeak pertsona zaharrak izan ohi dira, belaunaldi erleborik ez dutenak... Guk ondare hori mantendu nahi dugu”, azaldu du Uribarrik.

Irizarren iritziz, “kalitatearen epaile bakarra kontsumitzailea da; hemengoa izateak ez du bermatzen ona izatea. Gorenakekook baliabide gehiago dituztela gaineratu du, eta horrek kalitate hobea lortzeko edo ona izango dela ziurtatzeko aukera ematen diela. Nahiz eta gurean ez dagoen nahikoa sagar sektoreak produzitzen duen sagardo kopuruari aurre egiteko, Gorenakeko bozeramaileak ez du helburua baztertzen. Sagarra homologatu behar dela dio, eta urte batzuen buruan Euskal Herrian produkzio lineala lortzen bada, modu horretan egitera joko dutela: “Zenbat urtetan lortuko dugun %100? Ez dago jakiterik. Azkenean, gure esku ez dagoelako; hori baserritar, teknikari, instituzio, elkarte eta hamaika eragileren nahiz egoeraren esku dago”.

Datu ofizialik ez dagoen arren, Unai Agirrek argitu du Gipuzkoan erabiltzen den



sagardo-sagarraren %80 Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko sagardogileek hartzen dutela. Gainera, azken bi urteetan ahalegin berezia egin da bertako sagarra kanpora joan ez dadin.

Zerk bermatzen du kalitatea?

Sagastiak egokitzeko beharra ikusten du Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek, eta bide horretan pauso asko ari dira ematen: besteak beste, interesgarriak diren sagar motetara aldatuz, sagastia planifikatuz sagar mota bakoitza aparte biltzeko moduan, sagastiak urtero sagarra eman dezan lan eginez, produkzioak neurri jakin bat lortu arte hobetuz...

Gorenakeko kideak dio sagar onarekin sagardo txarra egitea badagoela baina sagar txarrarekin sagardo onik ez, eta hori gerta ez dadin zenbait ekintza burutzen dituzte: esaterako, belarraren mozketak, berez urtean behin egiten dena, hiru aldiz egitea, edota botatzen den purina edo pixa kontrolatzea, landarea ahuldu ez dadin. “Guk badakigu sagasti asko ez direla zaintzen”, gaineratu du, baina analisiak egiten dituzte, eta horrekin ongariak zeintzuk eta zein tamainakoak izan behar duten neurtu dute. Gainera, arjoa gaixotasuna tratatuz, ekoizpena handitzea eta sagar hobea izatea lortuko luketela dio. “Sagar hori homologatzeak berme batzuk emango dizkigu, eta horretan lan egitea gure esku dago, gaur egun ez dugu berme nahikorik bertako sagarrarekin sagardo guztia egiteko”.

Labelako kideak aldiz, hemen kalitate egoia aurki daitekeela ziurtatu du. Taldeak konpromiso jakin batzuk hartu ditu, eta sagardoak horiek bete behar ditu zigilua eskuratzeko. Hala, sagarra bere heldutasunaren momentu onenean jaso behar da; sagarra ahal den gutxiena mindu behar da; ezin da kaxa eta

ontzi hermetikoetan mugitu, arnasa hartu behar duelako; sagardoa sagarra jaso ondorengo 48 orduetan egin behar da; eta prentsatzeko tenperatura jakin batean egin behar da. Finean, araudi publikoan dauden puntuak bete behar dituzte labela nahi duten sagardogileek.


Kontrol publikoa vs. pribatua

Gorenak markakoek, talde pribatua izanik, sagarra euren etxeetan jasotzen dute, eta bertan egiten dute lehenengo kontrola. Sagarra beraiek aztertuta, onarpen bat jasotzen du. Ondoren lehenengo zukua atera eta berau ere ikertu egiten dute. Hori guztia egin ostean ikusten dute sagardoa egiteko oinarria ona den ala ez. Nahasketa burutu eta egindako sagardoak hartxidura kontrola pasatzen du tenperatura kontrolatuz. Behin sagardoa eginda, botilaratu aurretik Fraisoroko Laborategira eramaten dute. Han, Gorenak taldeak zehaztutako parametro jakin batzuk bete behar ditu sagardoak. Gaur egun, Fraisorok onartzen duen edozein produktu ofiziala da; ez badu parametroak eskaturikoa betetzen, ezin du sagardo hori botilaratu.

Eusko Labelaren kontrola berriz, publikoa da. “Eusko Labela eta Gorenak markak bereizten dituen hiru ezaugarriak hauek dira: sagardoaren jatorria, marka ofiziala izatea eta taldetik kanpoko beste pertsona batek gu kontrolatu eta gure produktuak egiaztatzea” dio Alazne Uribarrik. Egiaztatzeak esan nahi du dokumentu ofizialak ezartzen dituen ezaugarriak betetzen direla, eta horretarako bermea izateak esan nahi du norbaitek independente, inpartzial eta konpetente moduan aitortu duela. “Guretzat oso garrantzitsua da kontsumitzaileari jatorria, kalitatea eta benetakotasuna bermatzea. Eta bestetik, sektorea laguntzea”, azpimarratu du Uribarrik. Eusko Labelak 221 ekoizle ditu erregistratuak: 274 hektarea Gipuzkoan, 82 Bizkaian eta 11 Araban. Horiek guztiak satelitez daude kontrolatuta eta egiaztatuta. Ekoizle baimendu eta erregistratu horiek araudia kontuan harturik jasotzen dute sagarra, eta euren upeltegietara eramaten dute, edo beste upeltegi batzuei saltzen diete. Sagarra aztertu eta bildu ostean, sagardotegian jasotzen da, eta jasotako kopuruaren zerrenda egiten da. Sagar horri zukua ateratzen diote sagardotegiek eurek dituzten sistemak erabiliz; tankeetan sartzen dute. Muztioa irakin eta gero jartzen zaie zigilua.

Laburtuz, sagarraren, muztioaren eta sagardoaren analisiak egiten dira kalitatea ona dela ziurtatzeko. Analisi fisiko-kimikoak, mikrobiologikoak eta, garrantzitsuenak, organoelektrikoak, burutzen dira guztia aztertzeko.

Eusko Labela zigilupean ekoizten duten sagardotegiek produkzio osoaren kopuru bat



ELKARTEAK UTZITAKO ARGAZKIA

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak 1977an sortu zen ofizialki. Goiko irudian, datozen lau urteetako zuzendaritza taldea: Ibon Aburuza (Aburuza), Patxi Azkonobieta (Urdaira), Gabriel Lizeaga (Lizeaga), Iñaki Bengoetxea (Ola), Napoleon Lertxundi (Saizar), Hur Astarbe (Astarbe), Ainara Otaño (Petrítegi), Pako Calonge (Calonge) eta Arantxa Eguzkiza (Iparragirre).

baino ez dute bideratzen labelera, sagardotegi handienek adibidez bertako sagardun produktuarekin tanke batzuk egin ditzaketelako, baina ez dute upeltegian egiten den sagardo guztiarentzako adina hemengo sagar. Horregatik, lanean hasi zenean, zalantzak izan zituen Eusko Labelak: tankeetan bildutako sagardoari egin nahi zizkioten azterlanak, ez upeltegi osoari, eta hori zenbaiti ez zitzaion egokia iruditu. “Guk esperientzia pittin bat bagenuen arlo horretan, eta bagenekien zenbait tresnaren bitartez tanke bakoitzean zegoen sagardoa azter zitekeela”, diote. Argi daukatena zera da, Eusko Label zigilua eramango duen sagardoak bertako sagarraz egin behar duela izan eta baliabide guztiak jarri behar direla hori horrela izan dadin.

Etorkizunerako asmoak

Etorkizunera begira helburu ezberdinak dituzte bi markak. Gorenakek “hemengo sagar on batekin sagardo ona egitea” du helburu. “Eragile askok parte hartu behar du hori lor dadin, ez bakarrik sagardotegiek”, dio Irizarrek, eta instituzioen diru-laguntzez hitz egin beharko litzatekeela uste du: “Instituzio batzuek ez dute nahikoa ematen, eta batzuek ezer ere ez”.

Bere aldetik, Eusko Label sagardoak jatorri izendapenaren ziurtagiria lortzea du helburu. Datorren hiruhilekoan dokumentua sortu eta Bruselara bidaltzeko asmoa dute Euskal Sagardoak izendapen hori lor dezan. Horrek esan nahi du izena babestuta egoteaz gain erreserbatuta geldituko litzatekeela. Horrez gain, ONAC-i, Berme Nazionalako Erakundeari, berme eskaera bidali diote.

Erakunde horrek egiaztatzen du egiten diren kontrolak egokiak diren ala ez, eta produktua kalitatezkoa eta benetakoa den. ■



GARTXOT



15€

ARGIAREN
HARPIDEDUNENTZAT

12€



TTAKUN (H)ERRENKA

2012: Odisea (kutxa)espazioan

2

001: *Odisea espazioan* zientzia-fikziozko film ospetsuan munduko hainbat gizaldi agertzen zaigu, *homo*

*sapiens*arena baino lehenagoko garaitik, etorkizunaren muturreraino kontatuak. Baina falta du zerbait. Egia kontatzea. Izenburutik: *2012: Odisea (kutxa)espazioan*. Hor primate talde batek kutxazain automatiko bat aurkitzen du, adimen maila altuago baterako zubi. Milioika urte geroago, ilargi batean lurperatuta ageri den beste kutxazain automatiko batek, zientzialarien arreta piztuko du. Azkenik, NASAko espazio-misio bateko kutxazain zentralak, espazio-ontzia gidatzeaz gain, ahoz komunikatzeko gaitasuna eta adimen artifizialeko motor boteretsu bat ditu, baina bere akats bat agerian ez gelditzeko, tripulazio guztia akabatzen saiatzen da. Hortxe gure munduaren historia. Hasieratik, amaierara arte. Aurkikuntza kasualitatez egin dut, baina ez zait komeni gehiegi zabaltzea (eremu urriko hizkuntzak babestuta sentitzearen abantailak). Batetik, aurkikuntza horrek guztiak txunditurik utziko zituen, eta Big Bang-aren teoria kolokan jarriko luke. Nire tresnak espazioko alderdi “huts” batera zuzendu nituen, unibertso hondo-zarata erregistratu eta gero Lurrera orientatuta objektuak detektatu asmoz. Hondo-zarata erregistratu ordez, kutxazain-seinale indartsuak iritsi ziren antena parabolikora. Seinaleak kontrastatu ondoren, unibertso zabalean 65 milioi argi-urtera beste “kutxazain” berri bat aurkitu dudala ez dago ukatzerik. Eta datu horrek Big Bank-aren nire teoria indartu egiten du, alegia unibertsoa Kutxa Bank handi baten leherketaren ondorioz sortu zela. Eta bestetik, 2012rako munduaren akabera totala iragartzen duten ahotsei

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

serio kasu egin beharko genieke. Senekak mundua ke artean bukatuko zela adierazi zuen. 1666an ere bukatzekoa zen mundua, piztiaren zenbakia zela-eta. 2000. urtean kaos informatikoak ere munduaren akabera erabatekoa ekarriko omen zuen. Inork ez du asmatu. Orain arte. 2012an sartu

berri gara, eta maien egutegia amaitzearekin batera, gure mundua ere pikutara joango da datorren abenduaren 21ean. Aditu nahi ez duenak, libre, baina munduaren amaiera ekarriko duen urtea izango da 2012, bai. Maien egutegiak iragartzen duena gertatzen ez bada, honako beste guzti hau gertatuko delako: gerra nuklearra; zenbait lurrikara; Eguzkiaren jardueraren maximoa izango da aurren; hori gutxi balitz, Lurraren eremu magnetikoaren noranzkoa ere aldatzekoa da 2012an justu; eta asteroide bat ere Lurrera erortzekotan da 2012an. Hauskorrak gara, eta aurren ezin gehiago. Eta ez bada horrelako ezer ere gertatzen, orduan 2012an munduaren eta unibertso osoaren amaiera ziur-ziur eragingo duena honako hau izango da: kapitalismoak (munduko bankuek) sortu duen krisiak zulo beltz bat sortuko du. Atzeratuta gabiltza. Hasi da sortzen. “Duela 10 urte euroa ezarri zenetik prezioak %23 igo dira, Erosketa saskia %48 igo da. Etxebizitzaren prezioa %66 igo da”. Zulo beltzak Unibertsoaren gainerako beste guztitik erabat isolatuta dauden espazioaren arloak ditugu, “Europako bankuek 115 milioi inguruko birkapitalizazioa behar dute krisia gainditzeko”, eta inguruan egon litekeen materia irentsiz segituko dute, guztiarekin amaitu arte. Ez ote da amaituko behingoz? Etsipena, hargatik, lehen ez bezalako mundu berri baten ataria izan liteke. ■



Seinaleak kontrastatu ondoren,
unibertso zabalean 65 milioi argi-urtera beste
‘kutxazain’ berri bat aurkitu dudala ez dago
ukatzerik. Eta datu horrek Big Bank-aren
nire teoria indartu egiten du, alegia
unibertsoa Kutxa Bank handi baten
leherketaren ondorioz sortu zela

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Kattalin Miner

TABERNA ZULOKO BLOGARIA

Lagun feminista izatea



nartzen zaila bada ere, denborarekin konturatzen zara, feminista izateagatik badituzula heteroaraua aukeratu eta betetzen dutenen interesa sortzeko hainbat puntu.

Segituan ulertuko didazue zuek zeuok ere feminista bazarete edo lagun feministaren bat baduzue. Nik beti jartzen ditut hiru-lau kasu, eta saiatuko naiz denak laburbiltzen.

Demagun, unibertsitateko zure lagun hetero-jator eta nahikoa “suelta” zen horren dei bat jasotzen duzula. Kontuan izanik urte eta erdi daramazula bere berririk izan gabe, zer izan daiteke deiaren arrazoia? Ez ezazue gezurrik esan, norbera feminista izan edo ez, denok pentsatzen dugu fabore bat eskatzeko izaten dela. Beraz, azalduko dizkizuet, niri esperientziak emandako hiru-lau aukera posibleak.

Bat: “Begira eske nire lagun batek [hau da, berak] non abortatu dezakeen jakiteko deitzen dizut”. Ondo da. Hau kuriosoena izaten da, kontuan izanik, nire lesbiana bizitza honetan ez dudala sekula abortatu; baina ere kuriosoagoa da, dei hauek direla eta, ederki dakidala nora bidali.

Bi: “Begira eske oso larrituta nago nire lagun batek [hemen bai izaten da benetan lagun bat] oso harreman txarra dauka bere mutilarekin, jada ez dakigu zer egin, ez digu ezer kontatzen, oso gaizki tratatzen du



DANI BLANCO

mutilak... Berekin hitz egingo bazenu...”. Eta bat-batean asistenta lana betetzen ikusten duzu zure burua, total zertarako eta, bere mutilak zu gorrotatzen bukatzeko, eta ondoren neskak berak, ezer aldatu gabe.

Hiru: “Nire mutilarekin oso gustura nago, asko maite dut eta hori dena, baina esperimintatzeko gogoia daukat, beste batzuekin egon, probatu...”. Ondo da. Eta hemen entzun nahi duen hori botatzen diozu, horretarako deitu baitizu, “ba egin kasu zure desioei, probatu eta abar, baina onena berekin hitz egitea duzu, gauzak argi utziz...”. Hemen kurioa da, lehenengo zatiari bakarrik kasu egin ohi dizutela, mutilarekin hitz egitearena ahaztu egiten dutela. Gero, feministak gorrotatzen dituen mutil bat gehiago gehitzen da gorroto zaituztenen listara.

Zer egingo diogu baina, baditugu lagun abokatu edo medikuak ere, eta haiei ere antzekoa gertatuko zaielakoan nago (“antibiotikoak hartzen nabil, edan al dezaket?”), beraz ez naiz gehiegi kexatuko, batez ere beste topiko bat ahaztu dudalako zerrendan: “Neska batekin oheratzea probatu nahi nuke...”, eta hor, hor gorrotatzen zaituen beste mutil bat sartzen da listan, baina normalean gehiago merezi izan ohi du. ■



«

Demagun
unibertsitateko zure
lagun hetero-jator eta
nahikoa ‘suelta’
baten deia
jasotzen duzula (...).
Azalduko dizkizuet,
niri esperientziak
emandako hiru-lau
aukera posibleak

»

TXANDAN

Josu Amezaga



Irlandako lurjabeentzat lan egiten zuen ofizial ingelesa zen Charles Boycott. Lurren eta etxeen jabetza gauza sakratuen pare jarriarik, gupidarik gabe tratatu zituen euren bizilekuetatik egotzitako maizterrak. 1880an, Irish Land League nazionalistak antolatutako ekimen zabalago baten barnean, Boycotten aurkako isolamendu kanpaina abiatu zen herrian: bere nekazariak batu gabe utzi zuten uzta; etxeko zerbitzariak bertan behera utzi zuten garbiketa; dendariak ez zioten ezer saltzen, ez eta postariak gutunak eramaten. Azkenean, urte hartan bertan alde egin

Charles Boycott

behar izan zuen Irlandatik, historiarako utziz hizkuntzarteko hitz indartsu bat.

Duela aste batzuk saiatu da BBK gure seme txikiaren ikasgelako ume baten etxea

kentzen, eta forma akats batengatik soilik atzeratu ahal izan da enkantea. Nik Kutxabankeko lehendakariari idatzi diot gaur, Charles Boycotten historia azalduz eta familia hau egozten badute aurrerantzean nire sosak usaindu ere ez dituela egingo hitz emanez.

Egungo krisia munduko jabe handiek herrien aurka abiatutako eraso da, nagusiki. Elkartasunak, eta ez teknokraziak, aterako gaitu zulotik. ■



Arantxa Uribe Irazusta

HIK HASIKO KIDEA

Hezi ala domestikatu?

Non ikasi dituzu ulertzen dituzula uste dituzun gauzak? Itxura guztien arabera, dakizkigun gauza gehienak ez ditugu eskolan ikasi, ez lau paretako eskolan, behintzat. Zer esanik ez, benetako bizitzarako —egunero aurre egin behar diogun horretarako—, behar ditugun erreparatzen badiegu. Bizitzako eskola ona omen, onena, dudarik gabe.

Eskolaren jiran gailtza herritar gehienok: batzuek ikasle, besteak guraso, ofizioz hainbat, afizioz edo bokazioz beste zenbait: bietatik asko, desio.

Zer espero dezakegu eskolatik? Zer eskatu behar diogu eskolari, hortaz? Hamaika galdera piztu zaizkit buruan. Azken aldian, zorionez, parean tokatu zaizkidan hitz-aspertuek eragina izango zuten, akaso: hezitzaileen ofizioa batzuetan, eskolaren eginbeharra besteetan, eskola hobetzeko hezitzaileek egin beharrekoa, eskolak jendartearekin izan beharreko harreman ezinbestekoa... Galdera bati heldu orduko segidan bestea atzetik. Galdera guztiak bezala: egiteko errazak, erantzuteko zailak. Hausnarketa batetik bestera jauzi egiteko aukera eskaini didate, gutxienez.

Gehienok nahiko genuke eskolak ikasle kritikoak, parte-hartzaileak, inizatibadunak eta irizpidedunak hezte. Ezagutuko duten munduan ibiltzeko eskuetan jarri ahal izango dizkiegun



«
Eta hezitzaileok?
Zilborrari begira ere
banago. Gure ikasle
izandakoei galdetuko
baliote zenbatetan sentitu
gaituzten hezitzaile eta
zenbatetan hezkuntza
profesional, zer esango
ote lukete?
»

tresnarik baliotsuenak izango dira, dudarik gabe. Eskolak eragin dezake, baina ezin diogu dena egiteko eskatu.

Eta hezitzaileok? Zilborrari begira ere banago. Gure ikasle izandakoei galdetuko baliote zenbatetan sentitu gaituzten hezitzaile eta zenbatetan hezkuntza profesional, zer esango ote lukete?

Ederra da eskua luzatu eta bidean laguntzea, ikertzen, mundua eta nork bere burua ulertzen laguntzea, egia osoen eta jakintzaren jabe bagina bezala ez aritzea; ez baikara. Gure lanak ez lituzke inola ere ikasleak domestikatu behar, mesede eskasa egingo genieke hala egitekotan. Izan ere, ez baita gauza bera hezte eta domestikatzeko. Hausnarketa sakona merezikio luke horrek, gure lanak eta jarrerak zenbat ekartzen dion batari eta zenbat besteari kontziente izan gaitzen.

Hezitzaile izateak gure jendartearekin eta inguruarekin konpromiso soziala eta etikoa izatea esan nahi omen du. Izan ere, heziketaren parte bat eskolak egin ahal izango du, baina ezingo du ordezkatu, inola ere, jendarteak egin beharrekoa. Funtsezkoa da ikasgela mundu egitea eta mundua ikasgela. Zerbaitegatik dio, jakituria handiz, afrikar esaera zahar batek: “Haur bakoitzaren heziketa tribu osoaren lana da”. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



esaten diogu elkarri. Egun on ere bai, aterkia haizearen mende dantzan izan arren.

Ez diogu beti desiraren gogoari hitza ematen, ustez jendetasunaz galdetzen digunari bidea emanez agurtzen dugu.

Halere, badugu zertaz poztu aurren. Badirudi aldaketak sumatzen ari direla politika guneetan. Herriko Etxeetan bereziki jada ikusten ari dira aldakuntzak. Orain arte agintzen ari zirenen kalterako Bildu frogatzen ari da kudeaketaren gardentasuna dela herritarrengan konfiantza sortzeko zutaberik sendoenetako bat. Gipuzkoako Beterriko udal bateko jardueraren

Urte berri on

berri izan dut, egindako bilkura publikoak oinarri. Aspaldiko partez bertako zenbait auzotan herritarrek alkatea eta

hautetsiak buruz buru izan dituzte, prentsarik gabe, propagandatik urrun, entzule. Eta egia baldin bada entzutea erantzunaren ataria dela, bide onetik doaz, urte berri on esateko moduan daude. Izan ere, berrie-maila, Bildu ez bozkatzeko gain, alkatetzatik kanpo gelditutakoen hurbilekoa nuen, herria beste era batez kudeatzeko modua badela sinesten hasia dena. Jokatzan dakienarentzat jokatzan badakiela frogatzeko jokatzeko baino hoberik ez dago. ■



BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza

Gora Euskal Irria!



XDZ

I

Koloretako ametsak
egi bihurtzeraino,
iritsi zarete Pirritx,
Porrotx eta Marimo,
ederragorik ez dago
pozez jantzi goraino
eta norbaiti irri bat
sorraraztea baino!

II

Liluratzen dituzue
ume eta guraso,
sudur gorrien magia
izango da akaso!
BECen neskabila batek
eskuak gora jaso
eta esan zuen: "Aita,
izan nahi dut pailazo!"

III

Ekitaldiak bukatu
ondoren alai-alai,
umeak egoten dira
zuen muxu baten zai.
Umore onez pizteko
ilusioa nonahi,
magia egiten duzue
baina lana ere bai.

IV

Euskara muxuen gisan
doala ahoz aho,
elkartasunak egiten
gaituela oparo,
denok garela berezi,
inor ez dela arraro...
Zuekin ikasi dugu
guzti hau ta gehiago!

V

Pupu eta Lorerentzat
dator garai berria;
izan dadin koloretsu
eta zoragarria,
jaso piraten bandera,
jantzi sudur gorria,
eta kantatu dezagun
gora Euskal Irria!

VI

Zuen mezuak hamaika
bihotz txiki bete du,
apaltasunez zarete
guzti ho(r)ien eredu.
Pirritx, Porrotx, Marimotots,
oso pozik gaude gu!
Ta horregatik banan-banan
esan nahi dizuegu:

*Maite zaitut,
maite, maite zaitut;
pila, pila, pila patata tortila!
Maite zaitut,
maite, maite zaitut;
ilargiraino eta buelta maite zaitut!*



DOINUA: Maite zaitut



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

452° F

Gradu bat gorago literaturaren teorian

452° F Literaturaren Teoria eta Literatura Konparatuaren Aldizkari Digitala bosgarren zenbakira iritsi da. Hiru urte daramatza sarean eta proiektuak hazten dihardu, hainbat herrialdetako unibertsitateen lankidetzaz. Itzultzaileen lanak erdaraz sortutako testuak euskaraz irakurtzea ahalbidetu du. Halere, euskaraz sortutako artikulua bakarra jaso dute, orain arte.

IRATXE ESNAOLA




LITERATURAREN TEORIA eta Literatura Konparatua masterra UABen (Universitat Autònoma de Barcelona) ikasten ziharduen ikasle talde bat kezka beraren inguruan bildu zen, orain hiru urte: literaturaren ikerkuntzan hasten ari ziren gazteek argitaratzeko euskarri baten beharra zuten. Master eta doktorego ikasleei plaza eskaintzea zen helburua, literaturaren ikerkuntzan adituak ziren irakasleekin elkarlanean. Izaro Arroita (Donostia, 1985) eta Ibai Atutxa (Galdakao, 1984) aldizkari digitaleko erredakzio kontseiluko kideak dira proiektuaren sorreratik. Hastapen haietat

Ray Bradburyren 451° F eleberrian paperezko liburuak erretzen zituzten. Gradu bat gehiago jarri diote 452° F aldizkariarekin, kritika literarioekin testuak erretzeko.

zera gogoratzen du Arroita: “Baziren aldizkariak, baina askotan maila oso altukoak, edo alderantziz, blogetan eta, kalitatezko irizpiderik gabeak. Guk zubi lana egin nahi genuen”. Esan eta egin. www.452f.com diseinu zaindu eta erakargarriko atarian orain arteko artikulua guztiak aurki ditzake irakurleak, lau hizkuntzataraz itzuliak: euskarara, katalanera, gaztelanara eta ingelesera.

Aldizkariak egitura zabala du. Erredakzio kontseilua dago batetik, oinarritzko batzordea dena. Bertan jasotako artikulua bi partaidek irakurtzen dituzte eta biek onartuz gero,



Ibai Atutxa (ezkerrean) eta Izaro Arroita (eskuineko orrialdean) 452° F aldizkariko erredakzio kontseiluko kideak dira.

mundu akademikoko ikerle prestigiotsuz osatua dagoen batzorde zientifikora pasatzen da. Bestalde, talde ezberdinak dituzte aldizkarian, kolaboratzaile boluntarioz osatuak: ilustratzaileak, zuzentzaileak eta itzultzaileak. “Guk hauei guztiei ekonomikoki lagundu nahi diegu, baina oraindik ez da lortu laguntzarik. Zuzendaria bi zenbakiro aldatzen da, ahalik eta egiturarik horizontalena mantentzeko” argitu digu Ibai Atutxak. Itzulpenak dira aldizkariaren ekarpen handiena, beharbada. Ez dute alferrik azpimarratzen: “Itzultzaile gabe proiektu hau ez litzateke berbera izango”. Bi elkarriketatuek doktoregoa burutzeko lanekin konbinatzen dute aldizkariko lana, “Ikertzaileak prestatzeko eta hobetzeko laguntza” deituriko Eusko Jaurlaritzaren beka aurre-doktorala jaso ostean. Tarte bat atera dute aldizkariaren hiru urteko bizialdiaz mintzatzeko.

451° F Ray Bradburyren eleberri ezagunaren izenburua da. Zergatik gradu bat gehiago?

Ibai Atutxa: Eleberriarekin jolastea zen asmoa. 451° F-en papera erre egiten bada, guk kritika literarioarekin erre egin nahi ditugu testuak, gradu bat gehiago erantsiz.

Aldizkarian oinarritzat dituzuen arbitraje sistema eta estilo liburua zorrotzak dira.

I. Atutxa: Gure helburuetako bat aldizkari zientifiko bat egitea izan da eta aldizkari zientifiko baten arauak betetzea. Horregatik arbitraje sistema. Horrek ahalbidetu du aldizkaria kalitatezko indexazio ezberdinetan sartu

izana. Zenbat eta zenbaki gehiago atera, orduan eta ezagunago egiten gara.

Artikulu guztiak lau hizkuntzataraz itzultzen dira. Jatorriz euskaraz idatziak zenbat jaso dituzue?

I. Atutxa: Bakarra jaso da, nirea, *Terrorista euskaldunaren eraikuntza diskurtsiboa* deiturikoa. Euskal Herritik iritsi zaizkigu artikuluak, baina gaztelaniaz. Hori bitxia da. Webgunearen estatistikei begiratuta gurean aldizkaria asko irakurtzen dela dakigu.

Izaro Arroita: Hasieratik saiatu ginen komunikazioa lantzen. Gurea herri txikia denez, bagenekien zer jende zebilen lanean eta saiatu ginen artikulugile balizkoengana zuzenean jotzen. Baina ez dugu bat bera lortu.

Ez al da bitxia? Hiru urte dira proiektua hasi zenuela!

I. Atutxa: Bai, bada. Guri gustatuko litzazuke INGUMAk (Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu Basea) artikulu zientifikoen indexazio webgunean euskarara itzulitako testuak sartzea, eta ez soilik euskaraz sortuak. Presentzian irabaziko genuke eta euskal ikerle batek artikuluetara jotzea errazago luke.

Baina aldizkarira iritsi ez den teoria, literatura konparatua eta kritika bada Euskal Herrian.

I. Arroita: Maila akademikoan literatura ikeritza ari den jendea badago, tesiak egiten-eta. Beharbada, beste euskarri batzuk aukeratzen dituzte argitaratzeko. Guri ingelesez eta gaztelaniaz iristen zaizkigu lan gehienak. Euskarazko irakurle askok orijinalok irakur ditzakete, baina alderantzizkoa nahi genuke: hemen egiten dena kanpoan ezagutzera eman.

I. Atutxa: Ikerle komunitatea eta ikerle gazteak badaude. Gu gara horren adierazle. Euskal kritika literarioaren euskarria sarri egunkaria da eta ez hainbeste aldizkari zientifiko. Beren lekua egin dutenak ezagutzen ditugu: Beñat Sarasola, Aritz Galarraga... Gure aldizkariaren lanetako bat euskarazko kritika literarioa gurea bezalako aldizkarietara erakartzea izan daiteke. Euskarazko sorkuntza gure bitartez berdin zabalduko da. Sarri, kritikari euskaldun edo katalanak gaztelaniara edo ingelesera jotzen du nazioartean argitaratzeko.

Sorkuntza teoriko-literarioa zer egoeratan dago Euskal Herrian?

I. Arroita: Tesia egiten ari garenok oso zentratuak gauden norbere gaian. Nik badakit nire gaiaren gainean zer egiten den, baina ez literaturako beste alor batzuetan. Memoria eta identitatea lantzen dut (gerraren memoria, diktadurarena, ETaren historia). Arlo horretan badira interesa eta ikerlanak.

I. Atutxa: Ez dut gehiegi sakondu horri buruz, baina egun ikerle gazteek egiten dituzten lanak atsegin ditut. Literaturaren ikuspegi filologikoarekin hautsi dute eta egiten den kritika literarioa edo kritika kulturala kontuan hartzekoak iruditzen zaizkit.

Zure lana, esate batera. *Tatxatuaren azpiko nazioaz* argitaratu zenuen Urtarrilean. Bigarren zatia osatu duzu.

I. Atutxa: Bai. Hau ere Utriusque Vasconiae-rekin argitaratuko dut Urtarril partean eta *Kanonaren gaineko nazioaz* deituko da. Aurreko lanean bazterreko diskurtsoak baliatu nituen ardatzeko diskurtsoa kritikatzeko. Orain ardatz hori literaturan nola eraikitzen den analizatu dut, Atxagaren *Ziutateaz* eta Kirmen Uriberen *Bilbao New-York Bilbao* liburuen bitartez.

Aldizkariaren irakurlearen profila nolakoa da?

I. Atutxa: Aldizkari zientifikoa da eta hori ez da ahaztu behar. Irakurle eredu irakurle teknikoa da. Baina aldizkari zientifikoak irakurle zientifikoarekin duen lotura zalantzan jarri nahi genuke. Interneten argitaratzen dugu. Doan da eta edonor sar daiteke orrialdean. Jakintza maila bat izan behar du irakurleak, noski, baina *Berriako* literatur kritikak irakurtzen dituenen gai izan daiteke gure aldizkari artikuluak irakurtzeko.

Sortzaileen lana erabili ohi duzue langai iker-tzaileek. Zer iritzi izan ohi dute sortzaileek beren obraren gaineko teorizazioaz?

I. Atutxa: Ezin da sorkuntza lana kritikarik gabe ulertu. Ez irakurketa mota bat inposatzeko, ezta literatur sorkuntzak daukan esanahi bakarra deskubritzeko, baizik testu batek eman ditzakeen aukerak zabaltzeko eta eztabaida sortzeko. Nik, adibidez, Itxaro Bordaren testuak edo Hertzainak taldearen testuak lantzean aukera izan dut bi aldeekin hitz egiteko eta pozik sentitu ditut.

Inguratzen denak zer gai aurkituko ditu 452° Fen?

I. Arroita: Zenbaki bakoitzak bi atal ditu. Miszelanea eta Monografikoa. Monografikoak gai bat lantzen du, baina aniztasuna da nagusi. Edgar Allan Poe, Literatura eta Nazio Identitatea, Ikasketa Kulturalak eta gehiago landu ditugu orain artean. Bosgarren honetan aukeraketa berezi bat egin dugu, aurreko zenbakietan onenak iruditutako zitzaizkigun artikulu egileekin. Gure aldizkariak gaien aniztasuna du bere alde. Ez da literatura zentzu itxian, oso zabala da.

I. Atutxa: Miszelanean Batman-en gaineko poesiei buruzko lanak egon daitezke, eta aldi berean, itzulpenari buruzko lan teknikoago-



ak. Edonor sartzen dela ere, intereseko zer-bait aurkituko du.

Hurrengo zenbakian zer, adibidez?

I. Arroita: Urtarrilean argitaratuko denak *Indarkeria eta identitatearen errepresentazioa Latinoamerikako Literaturan* izango du ardatz. Zazpigarrenenerako gaia, berriz, *Itzulpengintzaren inguruko ikasketak eta Literatura Konparatua*.

Aurrera begira, paperera salto egiteko asmorik?

I. Atutxa: Hasieran hitz egin genuen paperaz, baina egun Internetekin oso pozik gaude. Luxua da José Colmeiro bezalako kritikari eza-gun batek ingelesez argitaratzea Estatu Batuetatik eta euskaraz eskaintzea Euskal Herrian. Hori Internetekin bakarrik lor daiteke. Papera muga da egun, bai irakurleetara iristeko eta bai testuak zabaltzeko. ■



CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

Zinema

Pantaila itzali da Kresala zine-klubean

Azken ia 40 urteetan astelehenero pelikula bat ikusi eta horren ostean solasean aritzeko parada izan da Donostiako Kresala zine-klubean. 1972an sortutako klubak iazko abenduaren 26an ateak itxi zituen.

IRATI SARASUA ARABAOLAZA

“FILMAK AMAITU OSTEAN egiten ditugun solasaldiak dira astelehenetako gauza xarmagarriena. Garai batean solasaldi horietan izaten genuen egunerokotasunean bizitzen genuenaren inguruan hitz egiteko parada. Askotan denbora gehiago pasatzen genuen hizketaldi horietan pelikula edo dokumentala ikusten baino”, dio Kresala zine-klubaren sortzaile eta gaur egun arte ekintzen antolatzaile izan den Luis Berguak. Lehenengo urtearen ostean Juan Berasategi, Fernando Mikelajauregi eta beste zenbait pertsona elkartu ziren Berguarekin, eta guztien artean lortu dute urte hauetan guztietan zine-kluba bizirik mantentzea.

Kresala taldea 1967an sortu zen; astero, astelehenetan, Kresalaren egoitzan pelikula eta dokumentalak emateari ekin zioten. Emakaldi haietara jende asko joaten zen, zenbait film behin baino gehiagotan eskaini behar izan zuten. 80 eserleku egoten ziren eta horien alboan leku irekia zegoen zutik egon ahal izateko. Zenbaitetan Espainiako Estatuan debekatuta zeuden lanak proiektatzen ziren eta horrek jendearen interesa pizten zuen: “Estreinaldi asko izan dugu, esaterako, Donostian *Potemkin korazatua* gure lokalean estreinatu zen. Guztiz debekatuta zegoenez, nik ez nuen kartelik jarri ezta inongo iragarpenik egin ere, ingurukoei abisatu nien soilik, pelikula debekatuta zegoelako eta poliziak jakinez gero kartzelara bidaliko ninduelako zuzenean. Proiektzioaren eguna iritsi zenean, egoitzara heldu eta ehunka gazte zeuden bertan, ilara aterainokoa zen. Harrituta geratu nintzen, eta pelikula osoa oso urduri ikusi nuen arren, ez zen ezertxo ere gertatu, polizia ez zen bertaratu eta filma osorik ikusi ahal izan zen. Zorte handia izan genuen”.

“Azken urteetan pelikula komertzialek hartu duten garrantziaz jabetu gara. Gureak ez dira horrelakoak, guk beste mota bateko filmak eskaini ditugu”

LUIS BERGUA

Filmak eman ahal izateko zenbait arau bete behar izaten zuten eta zati batzuk proiektatzea debekatuta egoten zenez, horiek ez erakusteko betebeharra izaten zuten; askotan hamar segundoko eszenak ere ezabatu behar izaten zituzten proiektatu aurretik, bikote bat elkarri musu bat ematen agertzen zelako adibidez. “Turismo eta Informazio Sailari ziria sartzen saiatzen nintzen askotan. Proiektatu ahal ziren filmen zerrendari nik bota nahi nituenak gehitzen nizkion. Eskulan interesgarriak izaten ziren haiek, jatorrizko zerrenda hartu, handitu, antzeko letra mota aukeratu, nik jarri nahi nuen lanaren izenburua gehitu eta berriro hasieran zuen tamainan jarri ondoren, hura erakusten nuen. Beti sinesten zuten, ez zuten nik egiten nuena imajinatu ere egiten” dio Berguak.

Urte zailak

Lehenengo urteetan, Kresalaren egoitza txiki geratu zitzaizenean, baina artean Kutxaren Arrasate kaleko egoitzan kokatu gabe zeudenean, Donostiako Karmelitetan egiten zituzten proiektzioak, eta astelehenero lurra mailakatu eta aulkiak jarri eta kentzen aritzen ziren. Lan gogorra egiten zuten, zirkoa zirudiela baina merezi zuela pentsatzen du Berguak. Frantzia, Kanada, Holanda, Alemania eta Belgikako enbaxaden bitartez lortzen zituzten filmak, horiek pelikulen banaketa errazten zutelako. Gainera, izugarrizko dokumentalak helarazten zizkietela dio Berguak. 1972. urtean Kresalaren egoitza utzi eta Kutxak Arrasate kalean zuen lokalean proiektatzeari ekin zioten, eta geroztik bertan erakutsi dituzte filmak astero.

Kresala sortu zenetik zenbait momentutan ikusle kopurua zela-eta une gogorrek pasa



dituztela onartzen du Berguak: “Urte gogorrena etapaka doan zerbait dela uste dut. Kultura interesatzen ez den garaiak daude eta beste batzuetan aldiz, aurkakoa gertatzen da”. Zenbaitetan itxi beharko zutela pentsatzera heldu dira, kanpotik pertsona garrantzitsu bat hitzaldia emateko kontratatu ostean oso entzule gutxi bertaratzen ziren: “Bidaia eta hizlariaren konferentzia bera ordaintzea ere kosta egiten zen hainbatetan. Guztia antolatu eta lotzea zaila izaten zen, eta ondoren askotan ez ziren hiru pertsona ere entzutera agertzen, horrek inpotentzia handia sortzen zigun eta askotan egon gara uztekoan”. Azken urteak gogorrak izan dira zentzu horretan, filmetan, orokorrean, 130 ikusle inguru izatetik, zenbaitetan, 30 ikusle soilik izatera pasa baita kluba. “Horrez gain, azken urteetan lan komertzialek hartu duten garrantziaz jabetu gara. Gureak ez dira horrelakoak, guk beste mota bateko filmak eskaini ditugu eta jardunaldi guztien zentroa ondorengo solasaldiak izan dira. Ez dugu gure saioetatik jendea besterik gabe ateratzetik nahi izan, ikuslearengan eragiten duten pelikulak nahi izan ditugu, eta horiek eskaini ditugu”. Jende gutxi azaltzeaz gainera, lau euroko sarrera prezioa askotan jendeak ordaindu nahi izaten ez zuenez, zenbait gertakari izan dute urte hauetan.

Azken urteetan aldaketa nabarmenak

Gaztetxoentzako proiektzioak ere egiten zituzten lehenbiziko urteetan, Steven Spiel-

Fernando Mikelajauregi, Luis Bergua eta Juan Berasategi, Kresala zine-klubaren arima izan dira azken 40 urteetan.

bergen *Jaws* eta George Lucasen *Star Wars* bezalako filmak ikusteko aukera izan zuten Kresalara hurbildu ziren garai bateko haur eta gazteek. Lan horiek eskaintzerakoan ere arazoak sortu ziren ordea, eta ezkutuan proiektatu zituzten, ezizenekin iragarrita. Azken urteetan ikusle kopurua jaisteaz gainera, ikusleagoaren adina nabarmen igo dela dio Berguak. Gaur egun, ikusleagoaren batez besteko adina 45 urte ingurukoa da, gazte gutxi gerturatzen omen da, zenbaitek aitzakia modura prezioa jartzen dutela dio. Azken hamabost urteetan bizi izan dute, batez ere, estreinaldien booma. Donostian bestela ikusiko ez ziren lanak eskaini dituzte, proiektzio gehienak estreinaldiak izan dira.

Zine-kluba sortu zenetik ia 40 urte pasa ostean lehenengo ekitaldi hartan eskaini zuten film bera, Luis Buñuelen *Ensayo de un Crimen* lortu zuten, kostata, abenduaren 26an zine-klubaren ibilbideari amaiera eman zion ekitaldirako. Beraz, hasi bezala eman diote amaiera Kresala zine-klubari. Urte hauetan guztietan proiektatutako 1.200 film eta eskainitako ehunka estreinaldi eta solasaldien etapa amaitu zen 2011 urtearekin batera. Filmaren amaieran ez zen “*The end*” irakurri ordea, “*To be continued*” baizik. Beste talde batek hartuko du zine-kluba antolatzeko ardura aurrerantzean. Urtarrilean Gorka Merchanen *La casa de mi padre* filmarekin hasi da Kresalaren aro berria. ■



Liburuak

KRITIKA

Hamazazpi urteko hamarkada


Hemeroteka

Aritz Galarraga

HALA ESAN NION LAGUNARI: Jon Alonsok baduela hamarkada bat, oparoa oso, zeinean isuri zuen bere ekoizpen literario guztia, gero isiltasun berdin literario batean gordetzeko edo. Berandu hasi zela estandarretarako, 37 urteen bueltan, 1995ean, *Idiaren eraman handia* saiakera eta *Katebegi galdua* nobela ia aldiberekoekin. Eta hamarkada luzexkoa akitu zuela *Erretzaileren eremua* ipuin bildumaren ondoren, 2007an, *Astrolabioa* saioarekin. Tartean hartuko lituzke hartara tarte honetarako aukeratu dugun *Camembert helburu* edo berdin aukera genezakeen *Euskal karma* (ez naiz ausartzen sailkatzera, baina 2001ekoa da liburua).

Camembert helburu, beraz, gaur hemen Alonsori hizpide hartuko dioguna. *Euskal karma* zail bada sailkatzen (rapsodia gisa eman zuen idazleak berak), eskuartean dugun hau ez da hainbeste, baina bai gutxienez bitxi. Edaten du, minimo, bi txorrotatik:

saiakera eta nobela, nobela eta saiakera. Batetik da saioa, eta ez prezisamente gastrono-



Camembert helburu.
Jon Alonso.
Susa, 1998.
344 orrialde.
14,25 euro.

miakoa: mikroan Toulouse-Lautrec margolaria du jomuga, makroan arteaz hitz egiteko. Eta bestetik da eleberria, bere pertsonaia, bere trama, bere apareju guztiekin.

Eta nola egiten den bi horiek txirikordatzeko? Bada, gaizki ez, kontrara: leun, natural, hasieratik kristolako ostiakoa hartuko duela ikusten duzun protagonista baten bitartez, pertsonaia entrenablea azkenerako, hain da, hain, kalamidadea. Batetik ematen digu, luze eta zabal, artearen historian kapital izan zen denbora-leku baten berri; arteak, gaur ezagutzen (edo ezezagutzen) dugun artea izateko, hartutako bihurgunea seinalatzen digu, dokumentazio ilun eskergarekin, eskuzabal, entsegurik mami-tsuen bailitzan. Eta bestetik nobela bat ari gara irakurtzen, lasai demonio, patxada ederrean, gerturako betaurrekoak jantzi beharrik gabe. Nobelaren baselinak sartzen digula barruraino bestela saiakera gotorra litzatekeena.

Ai, baina lagunak, horixe dira besteren aurretik, lagun, eta laguntzeko daude tarteka. Okerretik atera ninduen berehala: *Camembert helburu* baietz, aldarrikatu beharreko liburua dela, baina hamarkadarena kentzeko kaskotik. Testu bat ederretea gauza ederra dela, kuriosoa litzatekeela Alonso hamarkada batez hitz egin ahal izatea. Baina hamarkada hori luzatzen eta beraz papurtzen duela *Tropiko tristea* itzulpenak. Aktibo asko dagoela Alonso, alegia. Intuizio bat izan nuen orduan: orain ere zerbait izango ote duen eskuartean. Haren lanak gogo biziz irakurri ditugunok hori desio genukeela otu zait, urte berriari zerbait eskatzekotan.



AMET/ BATEN
OINORDEKO GARA
UNIVERSIDAD VASCA EUSKO IRAKASTOLA NAGUSIA

www.ehu.es/ametsbateninordekogara

Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

1936



Diskoak

IKER BARANDIARAN



Mara Mara.
Igor Arzuaga & Luis Vil.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 44'14".
10 euro.

Mugaldean jantzitako inozentzia

HARRITUTA gelditu nintzen hain ibilbide desberdina izan duten Audioko eta Amurrioko bi musikari hauek, betaranoak eta nortasun berezkodunak biak, elkarrekin lanean jarri zirela jakin nuen. Vil rock australiarra eta gitarroa lantzen ibili izan da aspalditik; eta Igor Arzuaga azken urteotan Mara izenpean pianoarekin gidatutako kanta biluziak idazten. Oraingoan Arzuagak idatzitako kantak Vili eman eta honek AEBetako eta Australiako folkean,

mugaldeko sonoritateetan eta doinu latinoetan busti ditu. Ez hori bakarrik, tarteka Neil Young eta Nick Caveren giroekin ere zipriztindu ditu. Hala ere, Mararekin ezagututako tempoak, pianoa eta Arzuagaren abesteko era eta hitzak bere horretan daude, jakina. Beste musikari batzuek ere tarteka probatu beharko luketen lan esperientzia aberasgarria.

www.hotsak.com

Igor Arzuaga

«Erromantizismoa ulertzeko nire erak AEBetako folkaren iruditerian aurkitu du oinarria»

Nola elkartu zineten hain ibilbide desberdina duzuen zu eta Luis Vil? Zer ematen diozue bata besteari?

Flores de papel film laburrean ezagutu genuen elkar, Luis zuzendari eta ni aktore ginela. Gero, berorren soinu banda egin genuen elkarrekin. Hortik aurrera gure harremana handitu da eta disko honetako kanten maketa pasatu nion esanaz egiteko nahi zuena. Esperientzia ikaragarria izan da eta asko ikasi dugu biok.

Mara Mara. Disko hau are eta maragoa da?

Mara hor dago beti, baita nire herriko kaleetan, irribarretsu paseatzen ausartzen naizenean egun euritsu hauetako lurrina zeharkatzen. Ni Mara naiz, agian aldrebes ere.

Zure marka pianoa bada ere, lan honetan perkusioak, oso sinple baina modu berezian jota, kantak jantzi eta protagonismoa hartu du...



Bai. Ni ez naiz iaioa abestiak jantzen, eta Luisek, ordea, badaki zeintzuk diren bere erreferentziak eta ez du beldurrik errekurtsio horiek praktikan jartzeko. Emaizta artisau lana da, gordina, freskoa... Perkusioek eta baxuaren lerroek ezarri dute diskoaren nortasuna.

Bizitza bakarra kanta oso positiboa da. Ez da hala?

Ez dakit alaia den... bertan esaten dudana zera da, noizbait guztiok

izar distiratsua izango garela, eta izar izatearen esperientzia bortitza izango dela.

Luis Vilek utzi dizu tarteka barruan daramazun Leonard Cohen hori ateratzen...

Oso ondo pasatu dugu aho-tsa grabatzen, berak zuzentzen ninduen eta nik nirea ekarri nuen; beste instrumentu bat bezala landu dugu aho-tsa. Eta bai, atera da tarteka abesteko modu hori, testura ezberdinetan oreka bat bilatu nahian. Jakina, asko atsegin dut Cohen.

Zer dauka countryak eta Ameriketako folkak zuretzat?

Bihotz hautsien musika dela esan izan dute. Nik hori tangoa zela uste nuen. Erromantizismoa ulertzeko nire moduak, hunkitzeko nire erak, musika horren iruditerian aurkitzen du oinarria. ■



Ezpalak

GORKA BEREZIARTUA

Tabakalera eta Donostia 2016 ez dira ezkonduko



EUSKO JAURLARITZAKO Kultura Sailak proposatu zuen Donostia 2016ren kudeaketa eta Tabakalerarena bateratzea, eraikin horrekin zer egin

erabakitzeko azken hamar urteetan erakunde publikoak egiten ari diren gogoeta saio amaigabearen (orain arteko) azken kapituluaren. Donostiako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia ez datoz bat proposamenarekin, Kultur Hiriburutza aldi baterako dela argudiatu du foru erakundeak eta Udalak berriz, bi proiektu diferente direla. Bien bitartean, Kultura Garaikideko Nazioarteko Guneak zuzendaririk gabe jarraitzen du 2010eko maiatzean Joxean Muñozek dimisioa aurkeztu zuenetik. Gainera, hilaren 9tik kudeatzailerik gabe geratu da, Miriam Anituak kargua utzi ondoren. Otsailaren 1ean egitekoak diren bileran konpondu nahi dituzte problema horiek, zuzendari eta kudeatzaile berriak aukeratzeko prozesuak martxan jarritik. Abiadura handirik gabe aurrera doan prozesuaren erdian, obrak dira Tabakalaren erritmo ona daukaten bakarrak, aurreikusitako epeetan eta aurrekontuetan jarritakoa baino merkeago egiten ari baitira.

“Con A” plataforma jaio da, artearen munduan genero berdintasuna bultzatzeko asmoz

ARTEAREN hainbat esparrutan lan egiten duten profesionalak batu dira “Con A” izeneko plataforman, genero berdintasunaren alde lan egiteko asmoz. Mugimendua iazko azaroan hasi zen antzematen, Troconiz fundazioan antolatutako Euskal Artea eta Euskal Emakumea Lan Inguruan jardunaldietan. Abenduan gorpuztu zen plataformaren ideia EHU-ren Arte Eder Fakultatean egindako bilkura batean. Elkarteko kideek adierazi dutenez, “berdintasunaren alde eta sistema kulturalaren prekaritatearen kontra” lan egin nahi dute, horretarako lan-sareak sortuz eta aurretik lanean ari diren taldeekin kolaboratuz.

DANI BLANCO



Xabier Gantzarain

idazle eta arte kritikari azkoitiarrak irabazi du aurtengo Tene Mujika beka, Euskal Herriko arte garaikidea eta historia aztertze-

ko aurkeztutako proiektuarekin. Osatuko duen liburuaren helburua azaltzeko honako hitzak erabili zituen Gantzarainek: “Iragan hurbila aztertzerakoan, hemerrotekak miatzea bururatzan zaigu, gertaerak aztertzea, testigantzak jasotzea, eta bai, egin beharreko lana da hori, baina gure asmoa iraganari beste begi batzuekin begiratzea da: historiari artearen aldetik heldzea, eta arteari historiaren aldetik, eta Euskal Herriaren azken 60 urteetako historia arte plastikoetan nola jaso den aztertzea”.

Bi eta bat telesailaren kapitulu berriak grabatuko dituzte eta ETB1en eskainiko. 20 urte joan dira telesaila arrakasta handiz eskaini zutenetik eta orduko aktoreak izango dira protagonista: Jose Ramon Soroiz, Elena Irureta eta Ane Gabarain. Zuzendariak ere berak izango dira: Eneko Olasagasti eta Carlos Zabala.

Zero Sette akordeoi-orkestrak 25 urte bete ditu eta urte osorako programazioa antolatu dute hori ospatzeko. Urtarrilaren 14an hasiko dira, Lasarteko Manuel Lekuona kultur etxean Alboka abesbatzarekin, Erketz dantza taldearekin eta herriko beste musika elkarte batzuekin egingo duten kontzertuan.

● **Igor Otxoa Oreka TX taldeko kidea Donostia 2016ren bulegoan hasi da lanean. Berriarekin hitz egin zuen Europako Kultur Hiriburutzaz:** «Ulertzekoa da hainbat arlotan aurrekontua jaitea. Baina guk inbertsio moduan hartzen dugu hau; egiten ari garen guztia ez da gastua, inbertsioa baizik. Zenbakiak ikusita, agian, asko dela dirudi, baina hain prozesu luzea izateko, ez da hainbeste, eta gehiago beste hainbat arloekin alderatuz gero. Autobide kilometro batek gure herrian 20 milioi inguru balio du, eta abiadura handiko trenean 5.000 milioi daude gutxi gorabehera gastatzeko. Honek itzulera izango duela uste dugu, bai hirian eta bai proiektuak hartzen duen lurralde guztian ere. Lurraldetasuna garrantzitsua da, eta nahiz eta izenburua Donostia 2016 izan, lurralde eremua zabalagoa da. Gipuzkoa oso garrantzitsua da proiektuan, baita Iparralde eta Hego Euskal Herria ere».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Justiziari presaka idatzia

Ante la silla eléctrica (Facing the chair).
John Dos Passos. Errata naturae, 2011. 192 orrialde.

URGENTZIAZ idatzitako liburua da John Dos Passosen *Facing the chair*, 1927koa, Sacco eta Vanzettiren epaiketa bidegabearen aurrean izandako erreakzioa. Eta orain arte gaztelaniaz publikatu gabe zegoen, argialetxeak behar baino gehiago azpimarratu duenez. “*Esta importante obra*” eta “*conforma sin duda un texto apasionante*” eta... Zer kontatzen du ba liburuak hainbeste gabonez kanpoko girlanda merezi izateko?

Bada, ezer gutxi, kasu horri buruz zer edo zer irakurri duenarentzat. Sentsazio hori izan dut liburua bukatzean, ez dagoela gaizki alderdi dokumentaletik, baina nekez hartuko zuela XXI. mendeko gaztelaniazko edozein editorialek hura itzuli eta argitaratzeko lanik, egilea Dos Passos izan ez balitz. Eta ez edozein Dos Passos, ez pareta ukitzeraino eskuineko egin zen hura, ez letrajuntalari hasiberria, ez: *Manhattan Transfer* publikatu

berri, AEBetako letretan norbait izaten hasia zen idazlea baizik.

Baina bi anarkista italiar-amerikarren aurkako gehiegikeria judizialaren kontaketa honi zerbait —beharbada gauza asko— falta zaio la esango nuke. Izan nahi luke liburu bat, AEBetan jaiotakoei xamur esplikatu nahi liekeena etorkinak *american way of life*ra zein ondo egokitu diren; izan nahi luke aurreiritzi xenofoboak orokorrean auzitan jarri gura lituzkeen arrazoi sorta; izan nahi luke beldurraren kontrako manifestua, beldur hori erabili baitzuten hobetik gabeko bi lagun aulkian frijituta garbitzeko; baina izan, da, epaiketaren kronika periodistiko ez oso landua, lerro batzuetan bai, idazlearen estilo printzak erakusten dituen, baina presak jaten duena epaileek justizia jaten duten modu bertsuan.



EGIZUHARPIDETZA
EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Iparraldean 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)


TOLESTU

TOLESTU

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Baionan entzuna

- Zer da zig-zag bat?
- ?!?
- Bi ostaturen arteko biderik laburrena!

Despistatua

Pentsa zein despistatua zen Idoia!
Behin betaurrekoak galdu... eta bilatzeko, jarri egin zituen!!!




Soluzioa

Z	E	L	V	I										
U	I	N	H	A	K	I	N							
S	O	I	H	A	K	I	N							
P	O	H	E	L										
B	E	L	A	Z	E									
O	E	R	B	I	A	O								
E	R	B	I	A	O									
G	A	R	B	I	A	O								
J	A	S												
T	A	Z												
U	Z	T	E											
A	R	G	E	N	T									
A	R	G	E	N	T									
K	U	I	A											

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Egutegi unibertsalerantz



Maïen egutegia.

martxoa, ekaina, iraila eta abendua izan ezik, horiek 31 egun izango bailituzkete. Bost edo sei urtero (2015, 2020, 2026, 2032...) abenduari astebete gehituko litzaioke.

Esan bezala, sistema horren bidez beti asteko egun berdinean ospatuko lirakeke jai egunak. Finantzen alorrean abantaila handiak eskainiko lituzke horrek.

MARIANO RAJOY Espainia-ko presidentek astean zehar egokitzen diren festa egunak, ahal denean, astelehenera eramateko asmoa iragarri du. Eta Espainiakoa ez da jai egunei buruzko kezka agertu duen estatu bakarra krisi garai honetan.

Johns Hopkins Unibertsitateko astrofisikari eta ekonomialari batzuek jai egunak urtetik urtera aldatzen ez diren egutegia sortu dute. Hilabete gehienak 30 egunekoak izango lirakeke,



Intsentsua desagertzeko arriskuan

INTSENTSUA *Boswellia* espezieko arbustu txikietatik ateratzen da, eta batez ere Afrikan eta Asian aurkitu daiteke. Hainbat kulturatan oso erabilia izan arren, inoiz ez du nekazaritza-ustiapenik izan. Eta orain, desagertzeko arriskuan dago.

Journal of Applied Ecology aldizkarian ikerlari etiopiar eta holandar talde batek argitaratu emandako artikuluan, hamabost urte barru *Boswellia* arbustuen erdia, eta 50 urte barru %90, desagertu daitekeela adierazi dute. Bi urteko behaketen ostean iritsi dira ondorio horretara. Landare mota horrek ugalketarako ratio ona baldin badu ere, suteek, belardien hazkundeak eta intsektuen erasoek oso egoera larria eragin dute.



KENNYMORRISONPHOTO.COM



Babeslea: iametza Interaktiboa

Minutu bat eguzkitan eta 360 ordu argi infragorria emititzen

Arruntak dira aurrez argiztatu eta egon eta gero gauez edo leku ilunetan argia emititzen duten gailuak, baina gertaera horrek segundo batzuk baino ez du irauten. Georgiako Unibertsitateko (AEB) ikerlari batek izugarrizko aurrerakada lortu du arlo horretan.

<http://ttiki.com/33723> (Gaztelaniaz)

Zulo batzuetatik argi gehiago iragaten da estalita daudenean

Nano-munduan, askotan, gauzak ez dira gure eskalan bezala gertatzen. Gure tamainako munduan, xafla bateko zuloak estaliz gero, argiak ezin ditu zuloak zeharkatu; aldez, nano-munduan zuloak estaltzeko erabiltzen den materialak antena balitz bezala funtziona dezake.

<http://ttiki.com/33724> (Gaztelaniaz)

Nolakoa da zientziaz eta osasunaz duzun ezagutza?

Informazioa iristen zaigu eten-gabe eta askotan uste dugu asko dakigula hainbat gaitaz, baina benetan badakigu, edo besterik gabe zerbait daukagu horretaz entzunda? Ondoko loturan zure oinarritzko jakin-duria neurtu dezakezu.

<http://ttiki.com/33725> (Frantsesez)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Negu berri on

GURE JENDARTEAREN ur-aparretako bizi-mailari eusteak guda besterik ez dakargu. Energia premia gero eta harroagoak asetzeko, dagoen tokian dagoela, lapurtu eta ekartzen dugun petrolio upela etxeko atari aurrean, muturrean lehertuko zaigu. Gerra gorria. Energia premia apaltzea eta bertan sortzea da irtenbide bakarra.

Europar XX. mendeko lehen erdiko gerrateen ondorengo erregai eskasiari aurre egiteko gasoginoa zabaldu zen. Petroliorik ezean, gasolio eta gasolina gabezia, gai solidoak erreaz ibiltzen zen motorra zen gasoginoa. Ikatza, egurra, eta abar erreaz sortutako gasak mugitzen zituen automobilak, kamioiak, traktoreak... baita geurean ere. Nork ez du ikusten hor gure basoa? Erregai onena, garai batean sutegetan ere ospe handia zuen txilar-ikatza omen zen. Tamainagatik ez da ikatza izango, iduria baizik. Bere egurra erregosi eta iduri bihurtzeko txilar handiena, lau metrotik goitikoa, txilar zuria da, *Erica lusitanica*.

Oraintxe loretan da txilar zuria, ohikoa baino lehenago. Otsaileko lora abenduan. Gaur, urte berriko lehen eguneko ibilaldian, lore lagun asko topatu dizkiot txilarrari, ia denak aurreratuta, eguraldi epelaren altzoan: oroilorea (*Myosotis lamottiana*), zaingorria (*Geranium robertianum*), *Veronica persica* (basadutea ote dena?), ote beltza (*Ulex minor*), hirusta gorria (*Trifolium pratense*), txikoria-belarra (*Taraxacum praestans*), *Polygala vulgaris*, basa bitxilorea (*Bellis perennis*), esnebelarra (*Euphorbia helioscopia*) eta abar.



Beldar-habiak pinuan.

Negu berrian udaberriaren emana topatu dudan honetan perretxikotan nenbilen, esnegorritan (bakan batzuk) eta gibelurdinetan (mordoxka polita). Gibelurdinen adiskide haritz amerikarrean (*Quercus rubra*) indarrean ari zen mokoka har eta beldar bila okil gosekila. Udaberriko musika. Esnegorriaren lagun insignis pinuan (*Pinus radiata*) beste gose bat asetzen zen, prozesionaria edo pinu beldarrarena (*Thaumetopoea pityocampa*). Aurten aspaldiko urtetako beldar-habia gehiena, desdetxa, ikusten da. Aurreko batean, ohaide batek adar muturretan zetazko habiak dir-dir ikusita, pinuaren loreak ote ziren galdetu zidan. Negu berri, udaberri bete.



JAKOBA ERREKONDO



Negurokoa

Neguroko erretolikarekin nator. Ez bainaiz berehalakoan etsitzen duen horietakoa. Urte amaierako solstizioa, egun motzenak amaitu direla ospatzera joan naiz Bilbora. Arte Ederretako Museo ederrean dauden Jose Maria Ucelay margolari bermeotarraren kolore izokin-karako lainoak dituzten bi margolanak ikustea zen ospakizuna. Hor atera naiz museotik, pozik. Eta museoa inguratzen duten platan (*Platanus x hispanica*) galanten aldamenen horra miseria. Argazkiko espaloiko platanok eta bere lagunak inausi zituen alubitaren batek, udazkenen. Eta negu gozoan puja berria, kimu berriak eman ditu. Neguari aurre egiteko jasotako erre-serbak xahutu arazi eta kimuak neguak erreko ditu. Erruki dut platanok. Alde ederrean daude atzeko platanotzarrak, oraindik hostoak udazkeneko koloreei emanak. Bilbon. Triskantza berdina toki gehiagotan ere ikusi dut. Gehiegitan.



Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Hego Poloan ez da garailerik

ANTARTIKA, 1912KO URTARRILAREN 18A. Robert Falcon Scott kapitaina buru zuen espedizio britainiarra Hego Polora iritsi zen. Baina haien aurpegietan ez zen irribarrerik, iristean Norvegiako bandera bertan zegoelako. 34 egun lehenago Roald Amundsen izan zen Hego Poloan zapaltzen lehena. Nolatan lortu zuen Norvegiak, herri gazte eta txikiak, potentzia britainiar ahalguztiduna lehia horretan mende hartzea?

Hasteko, Amundsenek amarrua erabili zuen. Bere espedizioa isilean abiatu zen, eta bidean zela Scotti eta Norvegiako errege Haakoni telegrama bidez jakinarazi zien erabakia. Lau eguneko abantaila lortu zuen horrela, baina tarte hura ez zen helmugan erabakigarria izango.

Lerei tiratzeko, norvegiarrak 52 txakur eskimal bildu zituen. Scotten taldeak, aldiz, bide hasieran soilik erabili zituen txakurrak eta tarterik handiena espedizioako kideek beraiek lerei tiraka egin behar izan zuten. Amundsenek, bidean, txakur asko hil zituen gainerako txakurrak eta espedizioako kideak elikatu ahal izateko. Baina Scottek ez zuen animaliarik sakrifikatu nahi.

Pertsonak aukeratzera ere finago ibili zen norvegiarra: txakurretan aditu bat, mugazain bat, eski txapeldun bat eta balea-arpoilari bat bildu zituen. Scotten taldekideak ez zeuden espezializa-



Espedizio britainiarra Hego Poloan. Goian, erdian, Scott kapitaina.

tuta, eta ez zuten ia esperientziarik latitude haietan.

Amundsenek bete-betean asmatu zuen aholku eske inuitengana jo zuenean. Haien beroiak erabili zituen, haien elikadura ohiturak aintzat hartu zituen... finean, haien esperientzia bere egin zuen. Britainiarrak, berriz, potentzia esploratzaile nagusia izan ziren mende askotan, eta ez zuten uste inoren laguntza behar zutenik.

Eta, azkenik, Amundsenek zortea lagun izan zuen. Ordura arte mapetan ez zegoen glaziar ezezaguna zeharkatzeko erabaki

arriskutsua hartu zuen, bidea laburtzeko, eta ez zuen eragozpen handirik topatu. Scottek, ordea, bide "zaharra" aukeratu zuen, teoriarik seguruagoa. Baina britainiarrek ez zuten eguraldia alde izan. Hego Polora lehenak ez iristeaz gain, espedizioako kide guztiak itzuleran hil ziren, kanpamendu nagusira iritsi baino lehen.

Hala, Scotten porrota erabatekoa izan zela esan daiteke. Baina lehiakidearen garaipena ez zen itxuraz erabatekoa izan. Roald Amundsenek berak zera esan zuen Hego Poloan zapaldu zuen lehen gizakia izan eta hilabete batzuetara: "Ez dut inor ezagutzen bere desioen hain aurka dagoenik. Txikitatik Ipar Polora iristea izan da nire ametsa, eta Hego Polora iritsi naiz".



Arrastoak

Egutegi menstrualik ba al zen historiaurrean?



TUBINGAKO UNIBERTSITATEA

HOHLER FELS (Alemania) kobazuloko azken aurkikuntzak aztertzen ari diren ikertzaileen arabera, litekeena da. Aztarnategi oparoan Europa Erdialdeko labar pinturarik zaharrenak aurkitu dituzte: 15.000 urteko lau harri, giza-kiak margotutakoak (ezkerreko argaz-

kian, horietako bi). Harriak puntu marroi-gorrixkaz apainduta daude, eta ikerlariak hainbat hipotesi aztertzen ari dira horien erabilera argitzeko: besteak beste, esanahi erlijiosoa zutela edo egutegi menstrual izan zitekeela adierazi dute.

Irlandako pederastia kasuak

Elizak feudo bat galdu du


Apaiz pederasten eskandaluak zeharo aldatu du Irlandako gizartearen egitura. Estatua eta Eliza elkarrengandik gero eta bereziago daude. Keinu adierazgarri bat: Vaticanoan zuen enbaxada itxi berri du Gobernu irlandarrak.

AMAIA ALVAREZ BERAŠTEGI

IRLANDAKO HEGOALDEAN presidente aukeratzeko egin dituzten hauteskundeek datu esanguratsua jarri dute mahai gainean. Batetik, Michael D. Higgins, alderdi laboristaren hautagaiak, botoen %58 eskuratu ditu eta garaile suertatu da, eta bestetik, Dana Rosemary hautagai independenteak botoen %2,9 besterik ez ditu jaso. Lehendabizikoak abortatzeko eskubidea eta sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak defendatu ditu; Rosemaryk, aldiz, gai horien kontrako kanpaina gogorra egin du.

Datu horiek erakusten dute aldaketa handia izan dela irlandar gizartean. Eta aldaketa horretan, azken urteetan apaiz pederasten kasuak publiko egin izanak eragin itzela izan du. Izan ere, historikoki, eta bereziki irlako hegoaldeak independentezia eskuratu zuenetik, Irlanda Elizari estu lotuta egon da bai instituzioei baita gizarteari dagokionez ere. Historia hurbilean, harreman hori erakusten duten adibide ugari ikus ditzakegu: dibortzioa 1998an legezlatu zen; iaz Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Gobernua zigortu zuen arriskuan zegoen emakume bati abortoa egitea ukatzeagatik; eta oraindik gaur egun ere, eskolen %90ek Elizaren kontrolpean jarraitzen dute.

Azken hauteskundeen emaitzek erakutsi dutenez, hamar urtetan iritzi publikoaren jarrera Elizarekiko aldatu egin da. Hain justu, sexu abusuen ikerketak egiten hasi direnetik. Lau ikerketa nagusi egin ditu



San Patrizioaren irudia Irlandako eliza bateko beirategian. Elizak sekulako boterea izan du orain arte Irlandan.

Gobernuak 2000. urtean osatu zuen Batzordeak. Estatuaren eta Elizaren kontrolpean dauden hainbat eskoletan eta elizbarrutitan milaka kasu egon direla ondorioztatzeaz gainera, Hezkuntza departamentuko langile askok, apezpikuek eta polizia batzuek horien berri bazutela azaleratu dute txostenek. Azken abusuak, halaber, 2008an egin zirela frogatu dute ikerketek, alegia, Eli-

zak abusuei aurre egiteko neurriak martxan jarri eta askoz geroago, 1996an egin baitzuen abusuak eragozteko gida. Besteak beste, Amnesty International erakundeak Vaticanoaren ardura salatatu du Irlandan haurren kontra egindako "tortura eta tratu iraingarrietan".

Ikerketak egiteko Batzordea orain hamaika urte martxan jarri bazuten ere, haurren kontrako abusuak

AMAIA ALVAREZ BERAŠTEGI

Magdalenak, zigorrik gabe

Apaizek haurren kontra egin dituzten sexu abusuak azaleratzen ari dira gutxinaka Irlandan. Ordea, Magdalenen ordenaren etxeetako tratu txarrak iluntasunean jarraitzen dute. Eta hala jarraituko dute epe laburrean behintzat, kasu horiek ikertzeko prozedura askozaz opa-koagoa baita. XVIII. mendetik 30.000 bat emakume eta neska gazte pasa dira Magdalenen etxeetatik. Azkena 1996an itxi zuten Waterforden.

Gakoa erakundeen izaera juridikoan dago. Gaur egun ikertzen ari diren abusuak, oro har, Elizak eta Estatuak kontrolatutako eskoletan eta haiei lotutako diozesietan egin dituzte eta beraz badago ikerketa publikoa egiteko bide legala; Magdalenen kasuan, aldiz, neska gazteek

jaso zituzten tratu txarrak ikertzeko bidea zailagoa da, Elizaren ordena horrek ez daukalako Estatuarekin harreman zuzen ofizialik.

Magdalarrentzako Justizia (*Justice for the Magdalenes*) kanpainak, halere, bertan izandako tratu txarrak —emakumeak esplotatuak eta sistematikoki kolpatuak izan ziren— ikertu behar direla defendatzen du. Halaber, Estatuak horretan ardura daukala ere aldarrikatzen du. Izan ere, Gobernuak bertara bideratzen zituen emakume gazteak espetxera bidali beharrean. Haien ustetan “galduta” zeuden emakumeak bidaltzen zituzten Magdalenetara; ama ezkongabeak eta kalean bizi ziren neskak, besteak beste.

90eko hamarkadan hasi zen azalera-tzen. Kasurik ezagunenetariko bat Brendan Smyth apaizarena izan zen. 1994an atxilotu zuten 100 haur baino gehiagoren kontrako sexu abusuak egiteagatik. Dublin, Belfast eta AEBetan egin zituen delituak eta gerora frogatu izan denez, apezpiku batek baino gehiagok zeukan gertatzen ari zenaren berri.

Hala, ikerketa nagusiak orain dela hamar urte hasi zituen Gobernuak. Azkena, *Cloyne* txostena, aurreko uztailen eman zen argitara eta apaizek Corkeko elizbarrutian egindako sexu abusuak estali zituztela ondorioztatu du. Ordura arte argitaratutako txostenek diozesien jarrera “dese-gokia” izan dela esan dute, baina *Cloyne* ikerketa pauso bat harago joan da eta ezagutzera eman du Corkeko diozesiko arduradunek Estatuari informazioa ukatu eta gezurrak esan dizkietela. Diozesi horretan 19 apaizek jaso dituzte alegazioak adingabeen kontrako abusuak egiteagatik. Abusu horiek estali zituzten apezpikuen artean Aita Santuaren konfidantzazko gizon izandako John Magee agertzen da. Ikerketa egiten ari ziren bitartean, 2010eko martxoan, Elizan zuen kargua utzi zuen Magee-k. Edonola ere, kargua utzi duen bakanetakoa izan da.

Cloyne txostena izan da, hain zuzen, Gobernuaren haserrearen piztu duena. Ondorioz, 2011ko otsailetik Irlanda hegoaldeko Taoiseach (Lehen ministroa) den Enda Kennyk (Fine Gael alderdi kontserbadoreko kidea) lehen aldiz egin du Vaticanoaren kontra. Apaiz pede-

rastekiko Elizaren “nartzizismoa” gogor salatu zuen 2011ko uztailen Kennyk eta harrezkero, harremanak hoztu egin dira instituzio bien artean. Berriki, esate baterako, Irlandako Gobernuak keinu adierazgarria egin du Vaticanoan Irlandak duen enbaxada itxiz. Bertsio ofiziala krisi ekonomikoa izan bada ere (Iranen zuen enbaxada ixtea ere erabaki du), horren atzean Vaticanoarekin duen liskarra dagoela ez du inork zalantzan jarri.

**Eliza katolikoaren
krisiaren erroak Irlandan,
sexu abusuen
eskandalutik harago doaz,
“kultura minoritario”
bihurtzear dela esan du
artzapezpiku batek**

Txostenek argitara eman duten kasuen larritasuna ikusi ondoren eta haien aurrean Elizak izan duen jarrera agerian geratu eta gero, Irlandako Gobernuarentzako eutsiezina izan da Vaticanoa denbora gehiagoz babestea.

Nolanahi ere, Eliza katolikoaren krisiaren erroak Irlandan, sexu abusuen eskandalutik harago doaz, Dublingo artzapezpiku Diarmuid Martinek azaldu zuenez. 2011ko otsailen Cambridge Unibertsitatean egin zuen hitzaldi batean, Irlanda osoan eztabaida piztu zuten adierazpen batzuk egin zituen Martinek. “Eliza katolikoa kultura minoritarioa bilaka-

tuko da Irlandan”, aurreikusi zuen, katolizismoaren “krisi sakonari” buruz ohartarazi zuen heinean. Martinen ustez, Elizak ez du erantzun apaiz pederasten kasuen aurrean “behar bezala” —“egia estaliz gizar-tearen konfidantza galdu dugu”— eta horretaz gain “gazteak erakartzeko erronkan porrot egin du”. Azken batean, Elizak “behar dituen erreformak egin ez dituzte”, katolizismoa kultura minoritario bilakatuko dela uste du. Nahiz eta adierazpen horiek pisu handiko apezpiku batek egin zituen, salbuespena dira, orokorrean apaiz irlandarren jarrera isilik egotearena izan baita.

Justizia lortzeko, beraz, oraindik bide luzea dago. Irlandako hegoaldean oraindik ere ikerketak egiteke daude eta iparraldean oraindik ez dute tamaina handiko ikerketarik egin. Hala ere, duela aste batzuk, *Cloyne* txostenak eragin duen presioaren harira, iparraldean ikerketa bat egingo dutela erabaki zuen Stormonteko Gobernuak. Aurrerapauso gisa hartu dute abusuak salatu dituzten erakundeek —iparraldean abusu asko egin zirela ondorioztatzeko ebidentzia asko dago haien ustez—, baina aldi berean, ikerketaren prozedura salatu dute, gutxienez bi urte beharko dituzte-eta ikerketa hasteko. “Gehiegi itxaroten ari gara egia ikertzeko, zergatik behar dituzte bi urte lanean hasteko?”, salatu du prensa ohar baten bidez Eliza Katolikoaren Abusuetatik Bizirik Irten Direnen Elkarteak. ■



Andrew Madden

Sexu abusuak salatu zituen lehen irlandarra

«Apezpikuek abusuen berri zuten»

Andrew Madden-ek (Dublin, 1964) eliz mutila zela bizi izan zituen abusuak, 12 urte zituenetik 15 bete zituen arte. Ivan Payne Dublingo apaizak bortxatu egin zuela salatze-ko prozesua 1991n hasi zuen eta egia azalaraztea, apaiza zigortzea eta konpentsazioa jasotzea lortu du. “Nirekin justizia egin da, baina hamaika kasu daude oraindik ere iluntasunean”, dio. Ikerketa ofizialak bultzatzeaz gainera, 2003an bere biografia argitaratu zuen: *Altar Boy. A story of life after the abuse* (Eliz mutila. Abusuak jaso ondorengo bizitza).



“Historian lehen aldiz Gobernuak jarrera aldatu du eta gogor ari da jokatzeko Vaticanoren aurka.”

Zure kasua salatu zenuenetik egia gutxinaka ezagutzen ari gara. Zer balorazio egiten duzu?

Harrezkero abusuen kontrako kanpaina asko egin dugu Gobernu eta Eliza ikerketak egitera behartzeko. Hedabideen bitartez presioa egitea lortu genuen; gertatutakoa kontatzea izan da helburu nagusietako bat. Azkenean, 2000. urtean Gobernuak Haurren Kontrako Abusuak Ikertzeko Batzordea eratu zuen. Nahiz eta kasu guztiei buruzko egia oraindik ez den azaleratu, eta nahiz eta erabateko justizia egitea lortu ez dugun, azken hogeitaz urteetan emandako pausoei pozik nago.

Hedabideek egindako presioa, beraz, garrantzitsua izan da.

Dudarik gabe. Hedabideak izan ziren salaketa egiteko izan genuen bide bakarra. Gobernuak ez zuen ikerketarik egin nahi Elizarekin arazorik ez izateko, baina azkenean ez zuten izan gertatutakoa denbora gehiagorik ezaltzeko modurik.

Zuk salaketa egina zeneukan Batzordea sortu zenerako, nolakoa izan da abusuak jaso zituztenen erreakzioa?

Denetarik egon da. Ziur nago oraindik ere badagoela jendea salaketarik

egin ez duena, baina Batzordea eratu ondoren asko izan ziren gertatutakoa kontatzera ausartu zirenak. Denontzako gogorra da, batzuen- tzako gehiago. Baina, gutxienez, salaketa egiterakoan justizia lortzeko pauso bat eman dugu eta askok gainera konpentsazioa jaso dugu.

Zer deritzozu Elizak izan duen jarreraz?

Gertatutakoari garrantzia kendu eta ikerketetan lankidetzan jarduteari uko egin dio; beraz, ez du errespeturik erakutsi. Biziraupen neurriak hartzen ari da. Apaiz zehatz batzuei bota die errua erantzukizunik ez hartzeko. Ikerketek, ordea, argi erakusten dute apaiz horien arduradunak, Elizako goi mailako apezpikuak, abusuen jakinaren gainean zeudela. Bazekiten gertatzen ari zena eta ez zuten deus egin; are gehiago, gehienek karguan jarraitzen dute. Gauzak puzten ari garela diote, ez gaituzte entzun nahi. Iaz, esaterako, Irlandako apezpikuen bilera batera joan ginen abusuak jaso genituen lau lagun eta eskutitz bat eman genien Aita Santuari emateko. Ez ziotela emango esan ziguten.

Benedicto XVI.aren barkamen eskaera aurrerapauso gisa ikusten duzu?

Barkamena eskatu zuen eskutitz horretan bertan ez zuen inolako erantzukizunik hartu, apezpiku irlandarren arazoa dela esan zuen, mundu mailako arazoa dela kontuan hartu gabe. AEBetan eta beste herrialde askotan ere abusuak egin dituzte. Irlandan kasu hauek argira ateratzen ari badira, Elizaren eragina handia delako da, baina arazoa globala da.

Gobernuaren jarrerarekin oso kritiko agertu zara.

Gobernuak urteetan zehar Eliza babestu besterik ez du egin. Fianna Failen Gobernuak Elizarekin izan duen harremana oso estua izan da eta gauza asko estali ditu. 1992an, Gobernura jo nuen nire kasua ikertzeko eskatuz eta ezezkoa eman zidaten. Baina orain ikerketak mahai gainean daude eta 2011ko otsailetik aitzina Gobernu osaketa berria dugu [Fine Gael eta Alderdi Laboristaren arteko koalizioa]. Faktore horiek eragin dute Gobernuak jarrera aldatu izana eta lehen aldiz historian gogor ari da jokatzeko Vaticanoren kontra. Hala ere, Gobernuak gertatutakoaren ardura gehiago hartu beharko luke, gertaerak hezkuntza sisteman egin ziren eta.

Zer aldaketa sumatzen duzu gizartean eskandalu honen aurrean?

Gertaeren larritasunaren aurrean, Elizak sinesgarritasuna galdu du. Nola sinestu behar diete hiritarrek esan dituzten gezur guztien ondoren? Egia da askok Eliza lokala, irlandarra, eta Vaticanoa bereizten dutela eta bata edo beste babesten dutela, baina orokorrean Elizak errespetu moralak, boterea, galdu du. ■



Elikadura-alergiak

Ikerketa ordaintzen dutenek zer ikertzen duten

Elikadura-alergiak bikoiztu egin dira Europan azken hamar urteetan... eta batzuetan euria egiten du. Udazkenean aurkeztu zuten ikerlan eskerga baten emaitza duzu datu ikaragarri hori, baina igoeraren zergatiaz gutxi hitz egiten dute egileek. Normala balitz bezala. Ikus dezagun nor dagoen, azken batean, ikerketa horren atzean.

UNAI BREA

AZAROAREN 10ETIK 12RA Elikadura-Alergiei buruzko Nazioarteko Sinposiuma egin zen Bartzelonan. Besteak beste, EuroPrevall egitasmoaren txostena aurkeztu zuten bertan. 25 herrialdetan egindako ikerketaren emaitzak jasotzen ditu txostenak; hemeretzi Europakoak. Ia 100.000 lagunen kasua aztertu dute ikerlan eskergaren egileek, eta ondorio nagusia da, hau sinatzen duenaren aburuz behintzat, elikagaien ondoriozko alergiak azken hamar urteetan bikoiztu egin direla.

Txostenaren laburpena Interneten irakurtzeko aukera eduki dugu. Gauza asko esaten da hor. Montserrat Fernandez Rivas doktoreak, EuroPrevall-eko ikertzaile nagusietako batek, honela azaldu ditu lanaren helburuak: “Elikagaiek eragindako allergien benetako egoera ezagutu nahi genuen, haren prebalentzia neurtu, diagnosirako metodo berriak garatu eta, batez ere, patologia horren kostu sozioekonomikoa, hala nola Europako biztanleen bizi-kalitatean daukan eragina zehaztea”.

Hamar urtetan bikoiztu egin dira alergiak, eta igoera horren zergatiaz ez da hitzik ageri dokumentuaren laburpenean. Nola liteke? Prebentziorako armak garatzea ez litzateke lehentasunezkoa izan behar (diagnosia zein tratamendua hobetzearen garrantzia ukatu gabe)? Horre-



WWW.FOODALLERGENS.INFO

Gero eta alergia gehiago eragiten du jaten dugunak, baina ez dirudi ikerketalerro nagusiak horren arrazoia argitzera bideratuta daudenik.

lako zifra kezkarriek ez lukete zientzialarien jakin-mina piztu behar?

Elikadura-alergiak hamar urtetan bikoiztu dira Europan, baina EuroPrevall egitasmoaren txostenaren laburpenak ez du hitz egiten igoera horren zergatiaz

Nor da EuroPrevall?

Interneten erantzun bila hasita, ahalegin handirik gabe iritsiko gara www.europrevall.org webgunera. Letra handian, hasierakoan, azaltzen dute EuroPrevall diziplina anitzeko egitasmoa dela, Europar Batasunean abiatua baina beste herrialde batzuk ere partaide dituen. 67 kidek osatzen dute: osasungintzako erakundeak, izena aipatzen ez den dozena erdi enpresa, allergiaren gaineko ikerkuntzan buru diren elkarteak (webguneak dio hori)...

Letra txikiagoan, ikus daiteke Institute of Food Research (Janariaren Ikerketa Institutua) delakoak mantentzen duela webgunea. Beste klik bat.

Institute of Food Research Britainia Handiko erakunde bat da. Munduko liderretakoa da elikadura-osasunaren ikerketan eta elikadura-rekin zerikusia duten gaixotasunen prebentzioan, betiere beren hitzetan. BBSRC delakotik finantzazioa jasotzen duen zortzi institutuetakoa bat dela ere kontatzen diote jakin nahi duen orori. BBSRC, berriz, Biotechnology and Biological Sciences Research Council-en siglak dira, alegia, Bioteknologiaren eta Biologia-Zientzien Ikerketa Kontseilua, Londresko Gobernuak sortutako erakundea.

BBSRCren erabaki organo gorenak hamazazpi kide ditu; horietatik zazpi, gutxienez, ardura-karguak edota akzioak dauzkate zenbait enpresa garrantzitsutan. Batzuk elikaduraren arlokoak –genetikoki eraldatutako organismoak merkatu-ratzen dituztenak barne–, beste batzuk konpainia farmazeutikoak. Datu horiek BBSRCren webgunean bertan daude.

Alergien ikerketa nork ordaintzen du Espainiako Estatuan

Hasieran aipatu dugun nazioarteko sinposiumera itzuliko gara orain. SEAICEk antolatu du, alegia, Alergologia eta Immunologia Klinikoko Espainiar Elkarteak, zeinaren presidente eta presidenteordea, bide batez esateko, euskal herritar bi diren: Jose Maria Olaguibel mediku alergologo nafarra eta Ignacio Antepara, Basurtuko ospitaleko Alergologia Saileko burua. Dagoeneko ezagun dugun Montserrat Fernandez Rivas ere izan zen, orain urte batzuk, elkarteko presidentea.

SEAICEk irabazi asmorik gabeko elkarte profesional eta zientifiko modura aurkeztu du bere burua, eta euren webgunean ikus daitekeenez, lotura estua daukate SEAICEko Fundazioa izeneko beste entitate batekin, irabazi asmorik gabekoa hori ere, beraien aurkezpen-txartelari jaramon egin behar badiogu. Fundazio horrek

EuroPrevallen txosteneko datu batzuk



● Elikadura-alergiek eskolara joateko adinean dauden umeen %5eri eragiten die, eta helduen %8ri.

● Alergia daukan gaixo heldu baten kostua 1.280 dolarrekoa da urtean; herritarren batez bestekoaren bi halako. Umeen kasuan, gastua hiru halako da.

● Fruta freskoak eta fruitu lehorrek eragiten dute Europan erreakzio alergiko gehienak.



● Anafilaxia eragiten duten elikagaien %72 bakarrik daude behar den bezala etiketatuta.

patronatu bat du, zeinaren barruan dauden “Fundazioa diruz laguntzeko helburua duten patroibatzuk”, irakur bedi enpresa batzuk, hamazortzi guztira, den-

Zer aldatu da elikagaietan? Ala gu aldatu gara? Zergatik hitz egiten du hainbeste EuroPrevalllek alergiak diagnostikatu eta sendatzeaz, eta hain gutxi prebenitzeaz?

denak industria farmazeutikoaren arlokoak. Zerrenda webgunean dago, xehetasunak ezagutu nahi dituzten irakurleentzat. Laguntza, bestalde, ez da finantzaziora mugatzen: Fundazioa azpiegiturez eta giza-baliabide zein baliabide materialez hornitzeko konpromisoa daukate enpresa horiek.

Galdera batzuk

Ondo. Normala. Elikagaien eta sendagaien industriek ez badute interesik agertzen jaten dugunak

eragindako alergiez, nork agertuko du? Kontua da ea zergatik ez dioten funtsezko galderari erantzuten: zerk eragin du alergiaren prebalentzia orain dela hamarkada bat baino bi aldiz handiagoa izatea? Zer aldatu da elikagaietan? Ala gu aldatu gara? Zergatik hitz egiten du hainbeste EuroPrevalllek alergiak diagnostikatu eta sendatzeaz, eta hain gutxi prebenitzeaz? Bestetik gabe ametitu beharko dugu EuroPrevallen txostenak iradokitzen duena? Alegia, alergiak bikoiztu dira... bikoiztu dire-lako. ■





Tolosako Babarruna



Hoberenak soilik aukeratzen ditugu

☎ 943 650 253
www.tolosakobabarruna.com

Sébastien Castet

Euskal Konfederazioko langilea

«EEP iritsi da bere mugetara»

Duela aste batzuk, Ipar Euskal Herriko euskalgintzako herri mugimenduak biltzen dituen Euskal Konfederazioak agerraldia egin zuen. Euskararen Erakunde Publikoak abiatutako hizkuntza politikak goia jo duela azaldu zuen.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) egiten ari den hizkuntza politikak bereak eman dituela esan duzue.

Lehenik oroitarazi behar da zer den EEP. Botere publikoek 2005ean erabaki zuten EEP sortzea, hizkuntza politika publikoa eramateko Iparraldean; egitura publikoa da, ez da ez instituzioa ezta administrazioa ere. Hamarkada luzeetan aldarrikatu zuen euskalgintzak egitura publikoa. Ordura arte egin zen abantzu guztia euskalgintzak eraman zuen.

Sortu eta urtebetera, 2006an, hizkuntza politika proiektua eratu zuen EEPk eta euskalgintzako sektoreek esan zioten EEPri haien ustez kontuan hartu beharreko asmoak zein ziren. Guk hastapenetik ikusi ditugu gabeziak.

Zein dira gabezia horiek?

Aurrekontua lehena. 2006ko hizkuntza politika proiektua ikusten badugu biziki ausarta da, baina hastapenetik genekien aurrekontu harekin egitasmo guztiak garatzea ezinezkoa izango zela. Proiektua eta aurrekontua ez datoz bat.

Aurtengorako zein aurrekontu dauka EEPk?

Oraindik ez dakigu. Dena dela, EEPk ez du erabakitzen zenbat diru esleitu; botere publikoen esku dago hori.



“EEPren 2006ko hizkuntza politika proiektua ikusten badugu biziki ausarta da, baina hastapenetik genekien aurrekontu harekin egitasmo guztiak garatzea ezinezkoa izango zela”.

Bestelako gabeziak?

Frantses Estatuan lurralde hizkuntzek ez dute existentziarik. Beraz, hizkuntza politika ez da bakarrik eramaten diru-laguntza batzuk ematen eskuin eta ezker euskalgintzako eragileei. Zergatik erraten

dugu borondate onean oinarritutako hizkuntza politikak muga jo duela? 2005ean ez ginen zerotik abiatu, baina ez ginen biziki gora. Beraz, behetik abiatzen zarelarik erraza da euskararen aldeko urratsak ematea, baina momentu bate-

Manifestaldia martxoaren 31n

Euskal Konfederazioak eta Kontseiluak Deiadar kanpaina antolatu dute. Hainbat ekimen izango dira otsailean eta martxoan. Ekitaldi nagusia martxoaren 31n Baionan egingo den manifestaldia izango da. Egun berean, besteak beste, Okzitania, Ipar Katalunia, Alsazian eta Korsikan manifestaldiak edo agerraldiak egingo dituzte lurralde hizkuntzen aldarria egiteko.

tik goiti ez bazaitu legeak behartzen zaila da aitzinatzea. Hori da bigarren gabezia, lege babesik ez izatea. Adibidez, administrazioek ez dute inolako betebeharririk euskara garatzeko. Guk Iparraldean euskara ofiziala izatea aldarrikatzen dugu.

EEP mugatuta dago beraz...

Pariseko Legebiltzarrean finkatzen dituzte legeak eta EEPk eraman behar du bere hizkuntza politika Frantzian indarrean dagoen legediaren arabera, eta badakigu ez dela abantzu fitsik lurralde hizkuntzen alde frantses legedian. Lurralde hizkuntzak ez dira ofizialak.

EEPko langile kopuruak ere kezkatzen zaituzte.

2010ean 8,5 lanpostu ziren. Kontuan hartu gabe zenbait herriko etxe eta herri elkargotan dituen euskara teknikariak. Erran zuten 2011-2014ko hipotesia zela hamabi lanpostu finkoko lantaldea izatea. 2010eko urritik [Jokabide esparrua txostena onartu zenetik] lanpostu kopurua ez da emendatu.

EEPren eta euskalgintzaren arteko harreman ahulaz kexu zarete.

EEPk Aholku Batzordea sortu zuen euskalgintzako eragileekin. Ibilmoldea kritikatzeko genuen, urtean bi aldiz baino ez ginen biltzen eta anitzetan ez genuen ekarpenik egiteko paradarik. 2010ean onartutako *Jokabide esparrua* txostenean EEPk euskalgintzaren eta EEPren arteko etengabeko kontzertazioa aipatzen zuen; Aholku Batzordea bederen urtean bi aldiz biltzea eta lantalde tematikoak sortzea. 2011n 2006tik lehen aldiz Aholku Batzordea ez zen batere bildu. Bi lantalde tematiko sortu dira, motibazio eta sentsibilizazioarena, eta euskararen presentzia bizi sozialean, administrazioan. Lehen lantaldea bi aldiz bildu zen iaz eta bigarrena behin. Beraz, hitz emandako kontzertazioa ez da bete.

**"Frantses Estatuan
lurralde hizkuntzek ez
dute existentziarik.
Hizkuntza politika ezin da
eraman euskalgintzako
eragileei diru-laguntzak
emanez bakarrik"**

Galdetu duzue zergatik?

Ez dugu informaziorik. Edozein egituratan gertatzen da arazoak izatea, lan batzuk gibelatu behar izatea, baina bederen ukan dezagun informazioa. Ez dugu baitezpada beti azalpenik.

Euskararen erabilera emendatzeko lanean, EEPren esku-hartzea ez dela nabaritu diozue.

Erabileran ez da batere sentitu EEPren lana.

Inkoherentziak ere salatu dituzue.

EEPko administrazio kontseiluan

badira hainbat partaide eta horiek denek ontzat eman zuten 2006an EEPko hizkuntza politika proiektua, irakaskuntza atala barne. Alabaina, gero ez dituzte medioak ematen. Adibidez, Estatuak ontzat ematen du EEPk irakaskuntzarako definitutako egitasmoa, baina gero irakasle postuak nork ematen ditu? Ez EEPk, Estatuak. Estatuak eman beharko lituzke postuak, gero ez ditu ematen. Urtero, eskola publiko eta pribatuetan ez da aski irakasle euskara irakasteko. EEPren politika ontzat ematen du Estatuak, baina medioak eman behar direlarik Estatuak ez du hala egiten. Hizkuntza lege batek hori finkatzen ahalko luke irakaskuntzan.

Nola?

Gaur egun Frantses Estatuan Hezkunde Ministerioak gurasoen eskaerari erantzuten dio eta guk lortu nahi duguna da eskaeratik eskaintzara pasatzea. Adibidez, duela zenbait urte Korsikako lurralde elkargoak erabaki bat hartu zuen. Ordura arte, zure haurrak eskolan korsikera ikastea nahi bazenuen zuk egin behar zenuen desmarta, hau da, joan eta erran haurrak korsikera ikastea nahi zenuela. Elkargoan bozkatutako lege bati esker orain alderantziz da, zure haurrak korsikera ikasterik ez baduzu nahi orduan egin behar duzu desmarta. Badira orain ikasle gehiago korsikera ikasten. Guk nahiko genuke Frantses Estatu osoan lurralde hizkuntzekin halako lege bat izatea.

Hasierara itzuliz eta kontuan hartuz aldarrikatutakoa, alegia, lege babesik ez duela euskarak, bitartean zer egin deza-ke EEPk?

EEP iritsi da bere mugetara. ■



Babeslea: Hondarribiko Udala



Tretzevents, umeentzako aldizkari katalana itxi dute

TRETZEVENTS haurrentzako aldizkari katalan zaharrena zen. 1951.

urtean sortu zuten hamabostekari moduan eta *El infantil* izena hartu zuen hasiera hartan. Komikiak, ipuinak eta historiako gaiak jorratzen zituen 6 eta 12 urte artekoentzat. 8.000 aleko tirada zeukan eta 1968az geroztik Publicaciones de la Abadía de Montserrat (PAM) zen argitaratzaile.



lea. Azken zuzendaria Montserrat Ginesta izan da. Krisi ekonomikoa eta erakundeen laguntza kaxkarra izan dira aldizkaria ixteko arrazoi nagusiak.

Euskara, zentimetro kontua

ALDAGELA publikoetan nago, ama-alabei begira, hobeto esanda, aditzen. Diskrezioz ari naiz, baina nire belarriak haien aldera makurtuta daude. Amak alaba txikiari euskaraz egiten dio eta

alabak amari ere bai. Ze ondo, ze polita. Halako batean, eszena bukolikoan, bigarren alaba agertu da. Ama, alaba zaharragoari (7 bat urte izango ditu) gaztelaniaz hasi zaio. Triskantza! Belarriak alde batera utzi eta lotsarik gabe begiratu diot hirukoteari. Ez dago zalantzarik, ama bera da hizketan eta seguru biak bere alabak direla, antz handia daukate-eta. Nola liteke? Alaba bati euskaraz eta besteari gaztelaniaz? Espelikazioa behar du... Eta derrepente aittitta etorri zait gogora, eskuan metroa duela, bilobak sukaldeko paretan neurtzen. Harro asko egiten zuen marka lapitzarekin, bilobak hazten ari zirela ikusita. Aldagelako zurrumbilo (niretzat zurrumbiloa, hirukotea lasai ederrean ari da bi hizkuntzetan) linguistikoari aurkitu diot espelikazioa: amarentzat hizkuntzak zentimetro kontua dira, hainbeste zentimetrora arte euskaraz, eta hortik aurrera gaztelaniaz.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Kutxabankek bere erabakia zuzendu behar du

BBK, Kutxa eta Vital-en fusio hotzetik sortutako Kutxabank finantza erakunde berriak urtarrilaren 1ean ekin zion bideari. Eta lehenengo urratsek eta neurriek erakusten dute gaizki ekin diola. Hasiera oso txarra izan du, ez delako bera osatzen dutenen aniztasun politiko eta soziala errespetatu. Aniztasun hori exijitu beharko litzaioke, kolore politiko guztietako aurreztaileei erantzuten dielako, eta EAEko azken udal eta foru hauteskundeak datuei erreparatu, erakundeak ordezkariak funtsean aldatu delako. Ez da onargarria erakunde honen administrazio kontseilua soilik EAJ eta PPren kontrolpean geratu izana, "profesionalak" direla mila bider esan badute ere.

Gauzak horrela, logikoa da beste alderdi politikoek Kutxabank-en lehenengo neurri horiei erantzutea. Eta logikoa da ezker abertzalearen eta sindikatu abertzaleen aldetik pentsatzea erabaki horien atzean EAJ eta PPren akordio bat dagoela, erakunde berriari filosofia neoliberalak ezartzeko. Enpresa txiki eta ertainentzako kredituak erraztu eta enplegu duina sustatzera (Hego Euskal Herria ia 200.000 langabe daude) bideratutako neurriak izan beharrean, finantza espekulaziorako izatea berriz ere, alegia. Gogoan izan behar da, EAJren esku egon izan den Kutxa, higiezinaren arloko operazio espekulatibo arriskutsuetan ibili zela, Mediterraneo aldean adibidez.

Espero dezagun erabaki tamalgari horiek ez izatea norabide berean doazen beste batzuen aitzindari, Gizarte Ekintzari edo negoziozko kolektiboari eragingo lieketenak, esaterako. Kutxabank-ek bere langileei galdetu beharko lieke hitzarmen kolektiboaren negoziazioaren inguruan, eta euren erabakia errespetatu beharko luke. Gizarte Ekintza mantentzeko bermea ere eman beharko luke Kutxabank-ek. Zuzendu eta konpromisoak betetzeko garaiz dabil. Eta oraintxe egin behar du.

Juan Mari Arregi



BAHEA

Iñaki Arrutik esanak gipuzkoarena.net-en: "Azken urteetan, Mintzalagunari lagun berria inguratu zaio: Mintzodromoa. Ez da gauza bera, baina inguratzeko balio du. Inguratu ere, kide mordo bat inguratzen hasi da, orain ere Donostian hasita, Euskal Herriko bazter askotan. Inguratu, agian institutuak eta gaztetxeak inguratzeko ahalegin berriak egin ahal ditugu, hitanoa langai izan nahi dutenak, elkarte gastronomikoak, enpresak..."

Lagun onak direla ematen du Mintzodromoa eta Mintzalaguna. Ez legoke gaizki lehendabizikora inguratzen dena bigarrenengana inguratzeko lagunduko bagenu. Biek gauza bera bilatzen dute: harreman berriak euskaraz sortu eta harreman zaharrak euskaraz berritu.

Izen-jokoa besterik ez badirudi ere, ez dago soziolinguista izan beharrik izan-joko bat dela antzemateko".

Presoak eta euroak agenda politikoaren tontorrean

BILBON iragan larunbatean egin dakoa Euskal Herrian egin den manifestaziorik handiena izan ote den batek daki, baina bai handienetakoa. Hori ez da erabakigarria, baina beti izango da adierazgarria. Espero bezala gertatu da alde horretatik, ez ditu euskal presoak etzirako Euskal Herriratuko, baina euskal agenda politikoan gaiak duen lehen mailako garrantzia agerian jartzen du indarrez.

"Amnistiarik gabe, bakerik ez" izan da presoan aldeko mobilizazioetan hamarkadetan jaurti den oihuetakoa. Urruti gaude lelo horrek amnistia ulertzen duen egoeratik, baina bakea apurka egiten ari da euskal gizartean, batez ere ETAK urrian bere jardun armatuaren amaiera iragarri zuenetik. Baina itsuenak ere argi ikusten du presoak etxeratu gabe, normalizazio politikorik ez dela izango.

Prozesu luze eta korapilatsua izango dela ez du inork zalantzan jartzen, ETAKo presoek eurek eragindako biktimei buruz hitz egin beharko dutela ere ez, beren jardunak sortutako minaz, beren jardueraren armatuaren balorazioaz, barkamenaz, memoriaz... Gatazkaren lortzak utzitako gai bero horiez guztiez jardun beharko da, bakoitza bere posiziotik, posizio ahalik eta bateratuenaren lortuz elkarbizitza berri bati ekiteko, baina hori guztia bere testuinguru logikoenean egitea litzateke eraginkorra: bake prozesu batean. Eta hori da azken finean egin beharko dena, izen horrekin edo ez, hori delako ETArekin amaiera ordenatuari bide emateko modurik eraginkor eta eraikitzaileena.

MARIANO RAJOY-K, bitartean, bere eskolean jarraitzen du. Zergekin egin duena izan da salbuespen eta ezusteko bakarra, eta eredu



gisa baino gobernu ardurak dituzten ezkerreko indarren konplexu eta beldurak uxatzeko balio beharko luke. Gainerako denak atzeraldi ekonomikoa sustatuko du. Japoniak azken hamarkadan bezala jokatu nahi du, baina harena laukoizten duen langabezi tasarekin. Eta hori ezinezkoa da.

Bi tresna nagusi erabiliko ditu Rajoyk krisitik ateratzeko: bata, aurrekontuen mozketak handia; bestea lan merkatuaren erreforma berrietan sakontzea, funtsean langileen eskubideak murriztuz eta hauen kontratazioak eta soldatak ahulduz, horrek ekonomia hazkundera bultzatuko duelakoan. Eta prozesu hori egin ahala, gainera, merkatuek konfiantza berreskuratuko lukete Espainian eta bankuek mailegua malgutuko lukete.

Kolore guztietako ekonomialariek, ordea, iragarria dute neurrien porrota. 2007ko AEBen *subprimeen* krisia hasi zenetik hura V formako krisia zela ueste izan zuten ekonomialariek, erori baina gero maila berera igoko zela. Behin krisia mundu osora zabaldu ondoren,

2010eko atzeraldiak erakutsi zuen krisia W formakoa izan zitekeela, bi erorketa eta bi igoerakoa. Baina 2011k erakutsi du seguruenik L formakoa izango dela, erori eta hainbat urtetan behean jarraituko duela, eta gero eta aditu gehiago bat dator aurreikuspen honekin.

2011ko hondarrean jakinarazi zuen Joaquín Almunia EBk 2008-2010 artean 1,6 bilioi euro jarri zituela finantza sistema suspertzeko. Abenduaren bukaeran, halaber, Europako Banku Zentralak ia 500.000 milioi euroko mailegua eman zien 523 bankuri, hiru urtera itzultzeko eta %1eko interesarekin. Eta otsailaren bukaeran beste mailegu eskaintza handia espero da EBZren aldetik.

Orain ikus dezagun bankuek %1eko interesean lortutako dirutza hori nola erabili ahal izango duten. Bankuen arteko maileguak %4,7ko interes tasa du une honetan; Santander bankuak herritarrei mailegu hipotekario bat 30 urterera %3,37an eskainiko dio; pertsona arruntei ematen zaizkien maileguak %10-11n daude Espainian. BBVAk iazko azaroan Espainiaren zor publikoan inbertitu izan balu (%7ko interesean jaulki zen 10 urterako zorra) %6ko errentagarritasuna izango zuen. Eta Espainiako zor publikoan abendu bukaeran 18 hilabetera inbertituz gero %4,22 interesean egingo luke. Hau da, bankuei %3, 4, 5... puntuko tartea oparitzen diela EBZk. Hori produktu sinpleenak kontuan hartuta eta deribatu eta gisakoetan sartu gabe.

Guztiaren ondorioa larria da, ez hazkunde ekonomikoa, ez langabezia eta are gutxiago herritarren ongizatea, Europako Bata-sunean oraindik ere garrantzitsuen finantza sistema sendatzea eta sendotzea da.



Lurren lapurretak matxinada berriak dakartza Afrikara

Matxinada harrigarriak erakutsi dituzte Afrikako hiriek 2011n, Tunisiatik Egiptora, Libian barrena, ahaztu gabe Maroko. Karrikak bero egon dira beste askotan, Hegoafrika, Senegal eta bestetan. Baina landa eremuetan ere jendeak haserre dira. Munduari jakiak eta bioerregaiak emateko aitzakiatan, lurra ostu nahi zaie laborariei.

BRITAINIA HANDIA HALAKO ZORTZI, horra 2005etik 2010era bitartean estatuen eta multinazionalen arteko tratuetan sal-erosi den hektarea kopuruaren tamaina. 200 milioi hektarea baino gehiago mende luzez goldatu dituzten nekazarien eskuetatik janariak eta bioerregaiak era industrialean ekoiztu nahi dituzten konpainia erraldioenetara. International Land Coalition erakundeak ezagutarazi ditu datuok abenduan plazaratutako txostenean.

Harrapatutako lurren %78 bioerregaiak ekoizteko darabiltzate multinazionalak. Horregatik ez dira bete *Iraultza Berdearen* propagandistek mundu osorako agindutako mirariak, gosetiak ase ahal izango zirela alegia, eta elikagaien prezioek goraka jarraitzen dute.

Sorootan produkzio industriala egin ahal izateko, lurrik emankorrenak kendu dizkiete bertako nekazariei, azpiegituretatik gertuen daudenak, urez ongien hornituak.

Atzerriko enpresa handiei estatu txiroek —ez beti hain txiroek, gogoratu Argentinaz edo Brasilez— onura fiskal handiak eskainiz uko egiten diete zerga bidezko diru sarrerei; aldiz, estatu horien buruzagitzan ari diren eliteak bai aberasten dira, multinazionalen bitartekari lana egiten dutelako.

Farm Land Grabbing —nekazal lur lapurreta— izendatu duten neokolonialismo berri honek eraldaketa sakonak dakarzkie lekuko ekosistemei, baina kalterik latzenak bertako laborariei eraginez.

Nekazaritza industrial berriak denentzeko aski lanpostu sortzen ez duenez, askok burua makurtu eta hiri handietako txabolategietara emigratu dute. Baina lapurretari aurre egiten diotenak ere badira. Via Campesinak beste zenbait erakunde eta mugimendurekin azaroan Maliko Nyeleni herrian antolatu biltzarrean, saiatu dira estrategiak aztertu eta adosten.

Malin gertatzen ari dena ikusentzunezko batean azaldu du Philippe Revellik, haren webgunean bezala *Le Monde Diplomatique* aldizkariarenean ere bisitatu daitekeena: *Ruée sur les terres agricoles à Mali*, euskaraz libreki “Maliko laborantza lurren lapurreta izugarria” eman lezakeena. Niger ibai bazterrean erregadiotz hornitutako lur aberatsez ari da.

Mali hein handi batean oso lehorra izan arren, herrialdea zeharkatzen duen ibai handiaren ertzetan 1947tik egindako obra publikoei esker 90.000 hektarea urez ondo aseturik daude. 50.000 familiak lantzen dituzte baratze eta alorrok, Malik kontsumitzen duen arrozaren %60 ekoiztuz. Office du Niger era-

GRAIN erakundearen webgunetik hartu argazkian ageri da Tiedo Kane, Sexagon Office du Niger erakundearen maizterren sindikatuko kidea. Argazkilaria erakusten dizkio soroetan burututako artatxikiak. Paisaia horrek ez du luze iraunen: bertako nekazariak landu alorrok laster kendu egingo zaizkie, Gobernuak Markala Sugar Project konpainiari eman dizkiolako gutxienez 30 urterako, azukre kanabera ekoiztu dezan. Azaroan Nyeleniko biltzarrean Maliko laborarien buruzagi Ibrahim Coulibalyk esan zuenez, “gure begien aurrean ari zaizkigu lurra ebasten. Malin bertan 800.000 hektarea eman dizkie Gobernuak enpresei eta inbertsiogileei. Baina lurrok ez zeuden hutsik! Baliteke hor bizi diren jendeek jabego titulurik ez edukitzea, baina belaunaldiak daramatzate bertan, batzuek mendeak, eta, aldiz, Mali estatu gisa 1960an sortu zen”.

kundeak kudeatzen dituen lur horien bazterretan, beste familia asko bizi dira nekazaritzatik bezala abeltzaintzatik.

Azken urteotan, ordea, Maliko agintariak tratuak sinatu dituzte konpainia handiekin bertako lur onenentarik chunka mila hektarea saltzeko edo alokatzeko. Niger ibaitik ura eramanez garzatzatu beharko direnak.

Nyelenin ikusi dutena

Malibya proiektuak, Libiako kapitallarekin, 100.000 hektarea eskuratu ditu, Libiara arroza, barazkiak eta aziendak esportatzeko. Horretarako kanaletako bat zabaldu behar izan dute, eta errepide berria ireki Kolongo herri inguruetan. Djande Tamarak kazetariari deklaratu dionez, “Malibyak harrapatu gaituen guztiok gaude haserre. Dozenaka urte daramatzagu hemen bizitzen eta etxeak eraitsi dizkigute. Kalte-ordain oso kaxkarrak eman dizkigute”.

Proiektua orain geldirik dagoen arren, kanala zabaltzearen ondorioz herritarrek nabaritu dute ura urritu zaiela. Bamakoko gobernuarekin sinatuari esker, Malibyak lehentasuna izanen du beti Nigerreko ura eskuratzeko idorte garaian ere, eta ez dauka erantzukizunik jendeek nozitu beharreko kalteetan.

Tomota talde maliarrak beste 100.000 hektarea eskuratu ditu, bio-



erregaietarako laboreak ekoizteko. Orain arte mila hektarea ingurutan erein da koltza, baina dagoeneko baserritarrak kanporatu dituzte espropiatutako lurretatik, Tomotak bere makinak sartu ditzan.

Markala azukre konpainiak Hego Afrikako kapital pribatua eta Mali-ko gobernuak biltzen ditu. 14.000 hektarearen jabe egin da, bioerre-gaietarako azukre-kanabera ekoizteko. 30 herritako lurra harrapatu ditu, bertako herritarrak haserraraziz. “Etxea kendu badizute, nora jo?”, dio herritar batek bideoan. “Kanaberak hondamendira garamatza. Segou eskualdea Maliko bihitegia da, baina artatxikia, fonioa, sorgoa eta babak ereinda, ez azukrea eginez”.

Alatona Millenium Challenge Account AEBetako USAID erakundearen proiektua da. 22.000 hektarea eman dizkiote nekazaritza industrialeko enpresa berriak sortu ditzan. 33 herritako jendeak lekualdatu dituzte horretarako. Hormigoizko etxez egindako herri berrietan bildu dituzte, familia bakoitzari lur txiki baten jabegoa emanez, eta kontent daudela dirudi.

Ez da, ordea, iritzi horretakoa Tiedokan Diallo, Association des Organisations Professionnelles Paysannes sindikatuko buruzagia: “Proiektu honen benetako helburua da Office du Nigerrek kudeatu herri-lurren pribatizatzea”.

Moulins Modernes du Mali Modibo Keita izeneko aberats maliar

batena da. 5.600 hektarearen jabe egin da, garitarako, 20.000taraino hedatzeko aukerarekin.. Sanamandougou herri zaharraren lurretako asko bereganatu ditu. Jendeak haserre protesta egitean, Keitak armadaren laguntza eskatu du. Etxeak lurre-ratu dituzte buldozerrez, buruzagiak espetxeratu, zahar eta emakumeak jipoitu. Hiru pertsona hil dituzte.

Nyelenin azaroan lur lapurretaren kontrako biltzarrerara hurbildutako berrehun militanteen artean ziren Sadamandougoukoak. Maliko nekazarien koordinatzaile Ibrahim Coulibalyk deklaratu du: “Inbertsio horiek herritarren sekulako ondorioak ekarriko dituzte. Horietako gehienek jendea lekualdarazten dute, bazterretako lur kaxkarragoetara eramaten dituzte. Jendeek ezingo dituzte beren familiak mantendu”.

Biltzarrean zen Shalmali Guttal, Indiatic etorrita, Focus on the Global South erakundeko kidea. “Lurra ebastea ekosistema osoa ebastea da. Lurra erekin harrapatzen dira ura, oihana, bioaniztasuna, fauna, flora. Inbertsiogileak eta gobernuak gezurretan ari dira garapena eta enpleguak sortzen dituztela diotenean. Garapena eta enpleguak sortuko ditugu nekazariei entzuten baldin badiegu”.

GRAIN erakundeko Henk Hobbelinkek azaldu duen moduan, mundu osoko nekazarien kontrako ofentsiba da hau. Milaka urtez gizadia elikatu dutenei, gaur ere elikatzen dutenei, esaten zaie atzeratuta daudela, eraginkortasunik gabeak direla, munduaren garapenaren oztopo. Hitz bitan, hobe dutela desagertzea. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Garbine Ubeda Goikoetxea

Nire lotsak

Dagoeneko sei bat urte joan diren arren, sarritan etortzen zait gogora Hendaiako ikastolara estreinakoz ailegatu nintzenekoa. Urte eta erdi eskaseko haurra besoetan nuela heldu nintzen, lotsati eta ezjakin, etxean jaso berri nuen gutunari jaramon eginez haren izena ahalik eta azkarren ematera, artean matrikuletarako aski denbora bazela pentsatzen nuen arren.

Orduko zuzendariak hartu ninduen, sinpatikoki hartu ere, dena esate alde. Eta ikasgelak, jolastokia, jantegia eta gainerako txokoak erakutsi ostean, bere bulego inprobisatura eraman ninduen zentroko araez, espero nukeenaz eta bestez lasaiago mintzatzeko. Espazio faltan, biltegi txiki batean jarrita zituen mahai-aulkiak.

Hitzordu hartako bi gertakarik harritu ninduten. Lehenik eta behin, txikiaren gelara eginiko bisi-tan begitandu zitzaianak: 2-3 urteko hogeitik gora haur, laukia osatuz ipinitako aulki luzetan elkarren segidan eserita, begiak handi eta ahoa zabal, kalakan ari zen irakasle-ari begira, isil-isilik, zirkinik ere egin gabe, geldirik. Diziplina maila hori nola lortzen ote den galdetu nahi izan nuen. Zer ipuin miragarri kontatzen ari ote zitzairen, denak estatuen antzean paralizatuta edukitzeko. Hipnotizatu egin ote zituen.

Bigarrenik, biltegi-bulegoan ginela, zuzendariak egin zidan erradiografiak. “Beraz, arazoa frantsesarekin izango duzue” ondorioztatu zidan ziplo, bere jakin-nahiari erantzunez etxean euskara hutsez aritzen ginela azaldu nion orduko. Guk. Alegia, haurrak. Ikastolan.

2-3 urteko ume horiei bezalatsu, beheko matraila laxatu zitzaidan bat-batean. Bada, arazoa frantsesarekin izango omen zuen gure haurrak, frantsesez egiten ez dugulako. Ez, antza, matematiketan, batuketa ximpleenetan ere sarritan tronpatzen garen arren. Ezta historian ere, edo euskal aditz trinkoetan, edo ortografian, edo soinketan, edo musikan, edo harremanetan...



DANI BLANCO

Barkamena ere eskatu nuen
kasik, Hegoaldekoa izateagatik,
nire frantses maila kaxkarragatik,
haurrei transmititu ahal izango
ez diedanarengatik, euskaldunen
artean ere arrotz eta artaburu
agertzen ninduen horregatik
guztiagatik

Txiste merketan has nintekeen, baina uzkurtu egin nintzen. Ahoa zabaltzeko momentuan, lotsatu. Eta, barkamena ere eskatu nuen kasik, Hegoaldekoa izateagatik, nire frantses maila kaxkarragatik, haurrei transmititu ahal izango ez diedanarengatik, euskaldunen artean ere arrotz eta artaburu agertzen ninduen horregatik guztiagatik. Gomendioa gaineratu zidan urririk: “Indar egin beharko duzue horretan”.

Besoetan neraman haur horrek zortzi urte beteko ditu aurki. Bigarren mailara heldu den honetan, eta Seaskako curriculumari jarraiki, frantsesak espazio esanguratsua hartuko du aurrerantzean. Bi gela ditu, eta bakoitzeko irakasle bana, lantzen ari diren bi hizkuntzen bereizgarri. Alegia, batean euskaraz eta beste frantsesez aritzeko. Bi munduak ez nahasteko.

Duela gutxi, hizkuntza maitatzearen garrantziaz aritu zitzaigun frantses irakaslea, gurasoen bileran. Mapa orokor bat ere egin zigun, ikasleen frantses maila zein den argitzeko, dakitenaren arabera taldekaturata zer nola irakasten duen azaltzeko. Gomendio bat ere eman zigun, berriz ere urririk, frantsesez kaxkar edo azentu desegokiz mintzatzen garen gurasooi: “Hobe haurrari ez laguntzea, ohitura txarrak edo ahoskera okerrak kutsatuko dizkiegu-eta”.


Ikastolara estreinakoz heldu nintzen egun hartan baino are txundituago utzi ninduen. Beraz, haurrari irakurzaletasuna piztu behar diogu, egunero apur bat egitera bultzatu, eta matematiketan lagundu, edo historian, edo aditz trinkoetan edo harremanetan edo logikan edo dena delakoan, baina frantsesean ez. Euskarari ukatzen dizkiogun perfektzioa eta balioa aitortzen dizkiogulako frantsesari. Eta gure lotsetatik, gure prestigio eskasetik, gure konplexuetatik eraiki dugulako harekiko —mundu errealekiko— erlazioa.

Eta derrigorrezko lehen hezkuntza deitzen diogu. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elxalde Auzoa, 22
Galdakao BIZKAIA

www.andra-mari.com

1



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

2



Xabier Lete Zuzenean

Erreteria 1999.IX.25
Azken kontzertua

5 CD opari

A&M PROMOTORA
Donostia GIPUZKOA

jarbelaitz@gmail.com

3



Artez euskara zerbitzua

2012
10 aisiagenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

4



888 txiste Kike Amonarriz

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2304. Argia)

IRIARTE JAUREGIA

- Xabier Mendiaraz Lasa (Donostia)

URBANO JATETXEA

- Kontxi Zubeldia Mugika (Donostia)

ARTIUM Arte garaikideko euskal zentro museoa

- Jose Ignacio Villar Saez (Bilbo)
- Estitxu Kortejarena Ugarte (Tolosa)
- Olatz Usabiaga Errazkin (Donostia)

XABIER LETE zuzenean CDA

- Pedro Azkue Berasaluze (Zarautz)
- Jose Manuel Larrañaga Garmendia (Zumaia)
- Karlos Zarraga Ellakuria (Zaratamo)
- Pake Garzia Konde (Elgoibar)
- Ima Eguen Balanzategi (Elorrio)

TAULA eta EGUTEGIA 2012

- Erramon Egurrola Zabala (Aulesti)

gunea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea



* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com

